

# Goienkaria

2009ko abenduaren 11 > Egubakoitza > X. urtea > 401. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net TOKIKOM

"36ko gerrako dokumentu eta akta gehienak Elgetatik kanpo daude"

Jesus Gutierrez  
Historialaria > 18



**G2a**

Garik lan berria estreinatuko du Espaloian > 21

**ARRASATE**  
Gazteendako hiru orduko Mihiluzea egingo dute bihar Kulturaten > 10

**BERGARA**  
Orfeoia kontzertua egingo du bihar Mariaren Lagundian > 13

**ARAMAIO**  
Energia berriztagarrien plana EEEn aurkeztu du Udalak > 19

**ARRASATE** > ZERBITZUAK

## Autobusa ospitalean geratuko da

Eibar-Eskoriatza linea hasiko da han geratzen, 2010. urte hasieran > 10

**ESKORIATZA** > ONDAREA

## Atxorrotzen topatutakoa ikusgai

Gaztelu zaharrean agertutako materiala Ibarraundin jarriko dute ikusgai > 16

**KIROLA** > SARIAK

## Bailarako kirol sariak abian dira

Abenduaren 18an banatuko dituzte Debagoieneko Kirol Sariak, Oñatin. Bigarren edizioa aldaketa batzuekin dator, baina oinarrian ekimenak sorrerako helburu bera du: ibarrean kirol esparruan diharduten pertsonen eta erakundeek egiten duten lana publikoki aitortzea. > 20

**JENDARTEA** > BERDINTASUNA

## Bi transexualek gose greba hasiko dute gaur Bergaran

**SALAKETA** Jaurlaritzak osasun pribatuko ebakuntzetarako eman izan duen laguntza kendu egin duela salatuko dute

**GAZTETXEAN** Errespetuz taldeak deitu du eta, gutxienez, bi lagunek hasiko dute, arratsaldean, gaztetzean

**HITZALDIA** Deitzaileek 19:00etan egingo duten hitzaldi informatibora joateko gonbita egin diete herritarrei > 04



ERABILTAILEAK Ane Untzurrunzagak, Joxe Arrietak, Rosi Ibagurenek eta Julio Igartuak dagoeneko badute ONA txartela.

XABIER URTZELAI

## Udalek bultzada eman nahi diote ONA txartelari

Dauzkagun isunak ikusi, medikuarekin txanda hartu, Euskadiko liburutegien katalogoa ikusi, INEMeko lan eskaintza begiratu... Gauza horietarako eta gehiagorako balio du ONA txar-

telak. Hala ere, gurean oraindik ez da horren ezaguna; bestalde, ibarreko udalekiko tramiteak egiteko ezin izan da erabili. Poliki-poliki hori aldatu gura dute zenbait udalek. > 02-03

### AURKIBIDEA

Debagoiena > 04  
Iritzia > 06  
Gutunak > 06  
Herriak > 09-19  
Kirola > 20  
Kultura > 22-23  
Sailkatuak > 24  
Gazteak > 26  
Telebista-Irratia > 27  
Eskelak > 29  
Non-zer > 30-31

Abantailaz  
betetako klubean  
parte hartuz,  
zure harpidetzari  
etekina aterako  
diozu!

Goiena Klubeko bazkide izateko Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun izan behar da.

Anima zaitetz eta aprobeztatu Goiena Klubaren eskaintza bereziak!  
Telefonoa: 943 08 10 50  
Posta-e: harpidetza@goiena.com



Goiena  
kluba



TEKNOLOGIA &gt; OSASUN TXARTEL ELEKTRONIKOA

# Udalek beste bultzada bat eman nahi diote ONAri

**BERRIKUNTZA** Arrasateko Udalak laster zabalduko du bere webgune berritua, eta han, tramite asko 'on line' egin ahal izango dira

**EZEZAGUNA** Erakundeekin gestioak egiteko aukera ematen du ONAk, eta erabiltzeko erraza da, baina ez dago behar adina zabalduta gurean

LEIRE KORTABARRIA &gt; BERGARA

ONA (Osasun Nortasun Agiria) zabaltzeko kanpaina eta ahalegin handiak egin dituzte Eusko Jaurlaritzak, EAEko foru aldundiek eta udalek, txartela hedatzen hasi zenetik, orain bi urte. Baina Debagoienean oraindik ez dago behar adina hedatuta eta jendeak ez du behar adina ezagutzen; ezta dagoeneko ONA daukaten askok ere. Txartelak erakunde eta administrazio publikoekiko tramite eta hartu-eman asko Internet bidez egiteko aukera ematen du, baina, batetik, aukera horiek guztiak ez ditu berdín ezagutzen jendeak, eta, bestetik, horiek egiteko bide errealak mugatuak izan dira orain arte; batez ere, udalekiko hartu-emanein dagokienez.

Hori aldatzeko pausoak ematen dabilta Debagoieneko udalak. Hala, Arrasateko Udala berritzen dabil webgunea, eta berrian emango du aukera izapide asko ONA bidez egiteko. BAZeko arduradun Edurne Muxikak hauxe dio: "Jendartea udalak baino aurrerago doa, eta inguruko udalak orain gabilta aurrerapauso hori ematen. Hala, Gasteizen, adibidez, lanpostu publiko eskaintzari dagozkion tramiteen %90 baino gehiago *on line* egiten dira dago-

eneko eta guri ere gero eta jende gehiagok deitzen digu galdetzeko ea egin behar hau edo bestea Internet bidez egin daitezkeen". Badi-rudi jendeak argi daukala Internetek aukera horiek ematen dituela, eta aprobetxatu gura dituela, baina, era berean, hori egiteko modu gutxi izan du orain arte. Horrekin bat dator ONA txartela oraindik "poliki" joatea zabaltzen bailaran, Edurne Muxikak esaten digunez. Horren beste adibide bat da, nahiz eta teoriarik kiroldegietara sartzeko balio duen, bailara-koetan ez dela horretarako erabiltzen, badaudelako beste txartel ohikoago batzuk.

**GERO ETA UDAL ZERBITZU GEHIAGO**

Arrasateko Udalak laster izango du gertu webgune berritua. Horretan, txartel digitalen -ONA, Izenperen Herritarren Txartela eta NA elektronikoa- gaineko informazioa ere emango du: zer diren, zertarako balio duten eta non egin daitezkeen. Webgune horretan, besteak beste, honako zerbitzuak eskainiko dira: errolda agiria etxean jasotzea; nor bere zergak, isunak edo ordainagiriak kontsultatzea... Txartel digitala eduki ezean, beste aukera batzuk ere izango dira: hala, errolda agiria

etxean jaso gura duenak eskaera egin beharko du. Normalean, txartel digitalekin egin daitezkeen izapide garrantzitsuenak horiek barik ere egin daitezke, baina txartelak ematen duten abantaila da berehala ematen dutela emaitza, eta ez da gauza bera gertatzen txartel barik egindako izapide edo eskaerekin.

Edurne Muxikak dioen moduan, zerbitzu eskaintza hori inoiz ez da behin betikoa, eta hala, Arrasateko Udalaren webgunea "gradualki" joango da eransten zerbitzu gehiago.

Debagoieneko beste udal batzuk ere igo dira teknologia berrien trenera, eta hala, Eskoriatzako Udalak ere ematen du errolda izapideak etxetik egiteko aukera, sinadura elektronikorekin. Oñatiko Udalak ere ematen du zerbitzu hori. Udal horrek, urria ezkerre, ONA eskatzeko leku gehiago aukeran ematen ditu.

Bergarako Udalarekiko izapiderik ezin daiteke egin, oraingoz, ONA txartelarekin.

**KZGUNEAN ERAKUSTEN DUTE**

Ezagutza eza ez da etorriko samurtasun ezetik, baina; izan ere, ONA txartela erraz asko ateratu daiteke Debagoieneko edo-



zein herritan, KZgunean edo osasun etxean; udaletxeetan ere ematen dute aukera hori. Osasun Txartel Indibiduala (lehengo Osakidetza txartel zuri-urdira) duen 16 urtetik gorako edozeinek eska dezake eta doan da.

Ane Untzuruntzaga da Bergarako KZguneako dinamizatzailea. "Atzeratzen dutenei, galde-tzen diet ea badakiten ze aukera ematen dituen txartelak, eta

gehienek erantzuten didate bizitza laborala ateratzeko balio duela. Nik azaltzen diet baietz, baina horrez gain medikuarekin hitzordua eskatzeko, hura ezez-

R.P.S. Nº 190/04 LLG.

## MULTIOPTICAS

1.A ZERBITZU OPTIKOETAN

Gabon hauetan

### SUPER ESKAINTZAK

www.multipticasgipuzkoa.com

Ray-Ban Mod. 4057

Lehen 109 €

Orain 79 €

Ray-Ban Mod. 4068

Lehen 119 €

Orain 79 €

Ray-Ban Mod. 3025

Aviator

Lehen 119 €

Orain 89 €

Ray-Ban Mod. 2140

Wayfarer

Lehen 109 €

Orain 79 €

Eskaintza hau indarrean egongo da 09/12/01etik 10/01/07ra arte. Ezin daiteke beste eskaintza edo promozio batzuekin pilatu.

J. Carlos Guerra 1 • Tel. 943 79 29 95 • **ARRASATE**

Ibargarai 16 • Tel. 943 76 15 75 • **BERGARA**



## Erabilera batzuk

- > **GIZARTE SEGURANTZA**  
Bizitza laborala eskatu, bulego birtuala... ([www.seg-social.es](http://www.seg-social.es)).
- > **LIBURUTEGIA** Dokumentuak erreserbatu edo eskatu, epeak luzatu... ([www.liburutegiak.euskadi.net/katalogobateratua](http://www.liburutegiak.euskadi.net/katalogobateratua)).
- > **OGASUNA** Zerga aitortpena onartu, aitortpen zaharrak ikusi... ([webwpub1.gipuzkoa.net/wps/portal/ogasuna](http://webwpub1.gipuzkoa.net/wps/portal/ogasuna)).
- > **OSAKIDETZA** Medikuekin txanda gorde, medikua aldatzea eskatu, bigarren iritzia eskatu... ([www.osanet.net](http://www.osanet.net)).
- > **ENPLEGUA** Lan eskaintzak eta eskaerak ikusi, gure lan eskaera berri, langabeziari dagozkion dokumentuak sinatu... ([www.inem.es](http://www.inem.es)).
- > **GIDABAIMENA** Gidabaime-naren puntuak kontsultatu ([www.dgt.es/portal](http://www.dgt.es/portal)).

Gero, ziurtagiri batzuk jaitsi behar dira [Izenpe.com](http://Izenpe.com) webgune-tik. Hortik aurrera, ONA erabil daiteke administrazio publiko-ekin izapideak *on line* egiteko.

### OSAKIDETZA, INEM...

Ane Untzurrunzagak dioenez, "erabiltzeko oso erraza da", eta administrazioaren leihatila asko modu birtualean irekitzen ditu, beste txartel batzuek baino abantaila gehiagorekin: "Osakidetza-ko medikuekin hitzordua egin daiteke lehengo osasun txartela-ekin, baina ezin daiteke ez aldatu, ez ezeztatu; ONArenkin, bai", azaltzen du Bergarako KZgune-ko dinamizatzaileak.


Adibide gehiago ematen ditu Untzurrunzagak: "Errenta aitortpen proposamena onartu dezakegu, eta aurreko errenta aitortpenak kontsulta ditzakegu. Osanet-en, hartu ditugun bajen datuak ikus ditzakegu; kexak edo erreklamazioak egin, errezeta elektronikoa kudeatu, medikuekin dauzkagun hitzorduak gogora ekartzen dizkigu... Lanari dagokionez, langabezia baldin bagaude, hiru hilabeteko Arrasateko INEMeko bulegora joan beharrean paperak sinatzera, Internetez sina ditzakegu; gida-baimenean zenbat puntu ditugun kontsulta dezakegu; edo kontu korrontea Kutxan baldin badaukagu, hori ere kudea dezakegu". Horiek dira KZgune-ko ikastaroan erakusten dituztenak, "eta horiek dira orokorrean erabiltzen direnak, baina gehiago ere badaude", esaten du Ane Untzurrunzagak.

Informazioa emateaz gain, ONA zabaltzen ere laguntzen duen dinamizatzaileok, Bergarako dioskun moduan: "Lagunei eta etortzen direnei esaten diet ea ONA daukaten edo egin nahi duten. Poliki-poliki, badabil jendea etortzen txartela egiteko, baina ez nahi adina".

## ONA txartelaren inguruko galdera-erantzun ohikoenak

### > ZER DA ONA?

Osasun txartel elektronikoa da, eta gauza askotariko erabil daiteke. Helburu nagusia da ONAK ordezkari dezala Osasun Txartel Indibiduala, ohiko Osakidetza erabiltzaile txartela; baina ONAri gehitu dizkiote osagarri teknologiko batzuk, eta administrazio edo zerbitzu publiko askorekin tramitatu egiteko balio du.



Ane Untzurrunzagak, ONA erabiltzen.

L.K.

### > NON ESKATU BEHAR DUT ONA TXARTELA?

Herri bakoitzeko KZgunean, eta baita osasun etxean edo udaletxe gehienetan.

### > ZELAN ESKATZEN DA?

Norberak joan behar du, eta karnet tamainako bi argazki eta NA eraman behar ditu. Handik hiru edo lau astera, gutuna jasoko du etxean, eta txartelaren bila joan ahal da eskatu zuen lekura.

### > ZEINEK ESKA DEZAKE?

Osasun Txartel Indibiduala duen 16 urtetik gorako edozeinek. 16 urtetik beherakoek ohiko osasun txartela erabiliko dute eta ONA ez dutenek ere hura erabil dezakete, nahiz eta ez dituen ONAK adina abantaila edo aukera eskaintzen.

### > NON JASO DEZAKET INFORMAZIO GEHIAGO?

KZgunean edo ONA tramitatu den lekuan; bestalde, [www.euskadi.net/ona](http://www.euskadi.net/ona) webgunean edo 900 84 08 84 doako telefono zenbakira deituta.

006693 47 10T

Ep.mug - Cad:  
08/18

tatzeko edo aldatzeko, bajak noiz hartu dituzten ikusteko, bigarren mediku iritzi bat eskatzeko... balio duela", esaten du Untzurrunzagak. Ezagutza falta hori asetzeko, KZguneek bi orduko ikastaroa egiteko aukera ematen diete ONA txartela ateratzen dutenei.

ONA bi modutara erabil daiteke: bat, norbera dagokion lekura joanda -adibidez, liburutegian dokumentuak maileguan hartzeko, ONA aurkeztu daiteke-, eta bestea, erabilera telematiko, ordenagailuaren bidez.

Modu telematikoan erabiltzeko, izapide gehienek eskatzen dute txartel-irakurgailu bat edukitzea; ordenagailu batzuek teklatuaren albo batean dute zirrikitia, eta beste batzuetarako, erosi egin behar da gailua. Hala ere, KZguneetako ordenagailuek badaukate irakurgailua, eta, txartela une puntaletan erabiltzen badugu, KZgunetik erabil dezakegu.



\* BERGARA

• -%15 matrikula ordaintzean



\* BERGARA/ARRASATE

(Bazkidearentzat bakarrik)  
• -%5 pakete konbinatuetan  
(eskaintza berezietan izan ezik)



\* DONOSTIA

• Eskaintza: bi erosi eta bat ordaindu

Goiena Klubeko bazkide izateko **Astehenekoa Goienkaria**-ren harpidedun izan behar da.

Anima zaitetz eta aprobetxatu Goiena Klubaren eskaintza bereziak!  
Telefonoa: **943 08 10 50**

Posta-e: [harpidetza@goiena.com](mailto:harpidetza@goiena.com)





JENDARTEA &gt; BERDINTASUNA

# Transexualek gose greba hasiko dute gaur Bergarako gaztetxean

Errespetuz elkarteak 19:00etan hasiko den hitzaldi informatibora joateko gonbita egin die herritarrei

MIRIAN BITERI &gt; BERGARA

Pertsona transexualen defentsa eta integrazioarako Errespetuz euskal elkarteak gose greba hasiko du gaur, egubakoitza. Elkar-tea lokal barik dago oraindik, eta, hori dela-eta, gose greba Bergarako gaztetxean egitea pentsatu dute. Oraindik zehazteke bada- go ere, gutxienez, elkarteko bi kidek utziko diote jateari.

Ixotz Louyest bergararrak gogorarazi du orain arte Osakidetza ez dituela transexualen kirurgiak bere gain hartu, eta, hori dela-eta, mediku pribatuen- gana joan behar izan dutela. 2005. urtea ezkerro Jaurlaritzak 60.000 euroko partida bideratu du diru- laguntzetarako. Bergararraren arabera, "ordaindu ditugun eba- kuntzen laurdenera iritsi ez badi- ra ere, emandako sosal eskertze- koak izan dira, ebakuntzen zama arintzen zuten-eta".

Aurten, baina, Jaurlaritzak aurreikusita zuen partida atzera bota du. Louyesten esanetan, "aza- roaren 18ra arte ez zuten jakina- razi Gizarte Saileko arduradunek laguntza horiek ukatuko dizkigu- tela. Gainera, ez digute esan zer- gatik. Gurutzetako ospitaleko Genero Unitatea irekita zegoen, baina zerbitzu gutxi zituen; eba- kuntza egiteko inolako bermerik

ESANAK

**"Abenduaren 15ean kurtso ekonomikoa amaituko da. Zain gaude; azalpenez gain, irtenbidea ere merezi dugu"**

Ixotz Louyest &gt; Errespetuz-eko kidea

ez dugu izan orain arte, ez eta bular ebakuntza bera egiteko ere. Bestela, zertarako joango ginat- ke kanpora ebakuntzak egitera".

LAGUNTZA BARIK

Horren harira, abenduaren 7an, Osakidetza egindako lehen eba- kuntzaz hitz egin du: "Ez zuten egi- teko asmorik, baina salaketa publikoak egon dira. Urtarriletik azarora bitartean, dena dela, osa- sun publikoan ebakuntza egiteko aukerarik ez dugu izan; eta orain, laguntza barik geratu gara".

Begararraren esanetan: "Ego- era salatu egin nahi dugu gose gre- baren bidez. Abenduaren 15ean kurtso ekonomikoa amaituko da eta oraindik ez digute irtenbide- rik eman. Zain gaude; azalpenez gain, irtenbidea ere merezi dugu".

Gose grebarekin batera, 19:00etan, transexualek bizi duten egoeraren gaineko hitzaldi infor- matiboa egingo dute Bergarako gaztetxean. Aurretik, 13:00etan, Gasteizen, Eusko Jaurlaritzza parean, agerraldia egingo dute.



Proiektuaren sustatzaileek lehen harria jarri dute asteon.

MU

HEZKUNTZA &gt; MONDRAGON UNIBERTSITATEA

## Abian dira Basque Culinary Center eraikinaren lanak

Gastronomia Fakultatea izango denaren lehen harria jarri zuten eguaztenean sustatzaileek

M.B. &gt; BERGARA

Eguaztenean, Gastronomia Zientzien Fakultateko proiektuaren sustatzaileak Donostia-ko Teknologia Parkean elkar- tu ziren, 2011ko udarako buka- tuta egongo den eraikinaren lehen harria jartzeko. Besteak beste, Patxi Lopez lehendakaria, Espainiako Berrikuntza ministro Cristina Garmendia, Jaurlaritzako Hezkuntza, Uni- bertsitate eta Ikerketa sailburu

Isabel Zelaa, Gipuzkoako dipu- tatu nagusi Markel Olano, Mon- dragon Unibertsitateko erre- ktore Josu Zabala eta sukaldari ezagunak izan ziren ekitaldian.

17,1 MILIOI

Gastronomia Zientzien Fakul- tatea eta haren Ikerketa eta Berrikuntza (I+G) Zentroa 8.000 metro koadroko lursailean kokatuko da. 17,1 milioi euro- ko aurrekontua du proiektuak.

### Gizarte laguntzarako Prestakuntza

#### INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEA

Bergarako UNED.  
Gizarte Laguntza Trebatzeko Eskola  
San Martin Agirre plaza 4 20570 Bergara  
Tel.: 943 76 90 33 • Faxa: 943 76 27 21  
Matrikula internet bidez egiteko:  
[www.uned.es/ca-bergara](http://www.uned.es/ca-bergara)

**Idazkaritzako ordutegia:**  
Asteartetik ostiralera:  
10:30-13:00 eta 17:00-20:00  
Zapatuetan: 09:00-13:00

## GERIATRIA LAGUNTZAILE DIPLOMA

**Iraupena:** 252 ordu (urtarriletik ekainera).

**Hizkuntza:** Gaztelania.

**Datak eta ordutegiak:** Kurtso hasiera urtarrila- ren 15ean.

**MATRIKULA EPEA:**

**Idazkaritzan:** 2009ko abenduaren 1etik 23ra arte.

**Interneten:** 2009ko abenduaren 31 arte.

**ASISTENTZIA TOTALA**

Eskolak asteazkenetan, ostegunetan eta ostiraletan izango dira 17:00etatik 21:00etara

**Prezioa:** 168 €.

Matrikulan %25eko deskontua (ezin izango da metatu) izango dute:

- Langabezian dauden eta INEMen izena emanda duten pertsonak (egiaztagiria aurkeztu beharko dute).
- Kutxako bezeroak direnak.

**MODALITATE ERDI-PRESENTZIALA**

Derrigorrezkoa da elkarrizketara eta ebaluazioko 6 saiotara joatea.

**Prezioa:** 250 €

Matrikulan %25eko deskontua (ezin izango da metatu) izango dute:

- Langabezian dauden eta INEMen izena emanda duten pertsonak (egiaztagiria aurkeztu beharko dute).
- Kutxako bezeroak direnak.



zer nahi duzu bihar?

[www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)

&gt; GAZTEAK

### Gaurtik domekara bitartean Deba bailarako jardunaldiak egingo dituzte Arrasateko gaztetxean

Deba bailarako gazte batzarrek jardunaldiak gertatu dituzte Arrasateko gaztetxean, gaurtik domekara. Egitarau zabala antolatuta dute; aisialdiarekin lotutako ekimenez gain, hitzaldi eta mahai- inguruak egingo dituzte; tartean, abertzaletasunaz eta euskaraz, gazteez, begetarianismoaz eta intsumisioaz jardungo dute.

&gt; ELKARHEZITZEN

### Ecologistas en Accion elkarteko Luis Gonzalezek saioa eskainiko du bihar Eskoriatzako Ibarraundin

Elkarhezitzenek antolatuta, bihar, zapatua, *Elkarlana eta partai- detza* ikastaroko hirugarren modulua egingo dute Eskoriatzako Ibarraundi museoan, 09:30etik 14:00etara. Ecologistas en Accion talde- ko koordinatzaile Luis Gonzalez Reyesek parte hartuko du han.

&gt; ELKARTASUNA

### Bidezko merkataritzako produktuen salmenta eta dastatzeak egongo dira gaurtik Harremanen

Harremanek bidezko merkataritzan oinarritutako produktuen sal- menta eta dastatzea egingo ditu bihartik abenduaren 31ra arte, Arrasateko Eroskiko sarreran duen dendan. Jakinarazi dute 10 euroko bonua gastatzen dutenek euro bateko deskontua izango dutela.


&gt; OSASUNA

### Obesitateaz jardungo dute martitzenean Arrasateko kulturaren, Debagoieneko Ospitaleak antolatuta

Martitzenean, hilak 15, *Obesitatea. XXI. mendeko epidemia* izene- ko hitzaldia egingo dute Arrasateko Kulturaren, 19:00etan. Deba- goieneko Ospitaleko Barne Medikuntza Zerbitzuko sendagile Con- cepcion Fernandezek gai horren gaineko informazioa emango du.



## Kutxa Inbertsio Irtenbideak



# 6+ Gordailu berria

6a maite duzenok, ongi etorri.

Hemen duzu 6+ Gordailu berria, zenbait enpresa liderren baloreekin heineratua, zure inbertsioa bermatu eta errentagarritasun handia eskuratzea ahalbidetzen dizuna.

zer nahi duzu bihar?

[www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)

 **kutxa**





**zabalik**

Ixotz Louyest

## Berdintasuna

Errespetuz, pertsona transexualen EAEko elkarteko kidea naiz. Egun hauetan transexualen kirurgiei buruz hainbat berri entzun edo irakurriko zenituzten zenbait komunikabidetan.

Prentsan aurkakoa agertu bada ere, Osakidetzak ez ditu gure kirurgiak bere gain hartu izan; horregatik, EAEko transexualok zirujau pribatueta jotzea izan dugu ebakuntzak egiteko bide bakarra. Bizi dugun bazterketa egoera hau nolabait leuntzeko 2005etik iaz arte Eusko Jaurlaritzak 60.000 euro eskaintzen zizkigun diru-laguntza moduan. Diru-laguntza hauek urteak joan eta urteak etorri ez dira aldatu, kopurua bera izan da eta beharra izan duten pertsona kopurua kontuan izanda motz geratu dira. Ordaindu ditugun ebakuntzen laurdenera iritsi ez badira ere, emandako sasak eskertzekoak izan dira, kirurgien kostuaren zama arintzen baituzten.

Aurten, ordea, eratu berria den Gurutzetako Ospitaleko Genero Unitatea aitzakia hartuta, azaroaren 18ra arte ez zuten aditzera eman Gizarte Saileko arduradunek laguntza hauek ukatuko zizkigutela. Abenduaren 7an burutu zuten lehen ebakuntza Osakidetzan, gure aldetik egon diren salaketa publikoak direla eta. Baina urteko gainontzeko hamaika hilotan egin al dute zerbait gure taldekideak orain pairatzen ari diren egoera ekiditeko? Hau da, hitzartutako diru-laguntzak eman ordez, egin izan balituzte ebakuntzak urte osoan zehar, bestela egongo ginatke; baina ez da horrela izan, ebakuntzarik ez, eta onartutako diru-laguntzak ere ez!

Hau honela, gure elkarteko bi kidek gose grebari ekingo diote Bergarako Gaztetxean, gaur, abenduak 11, eta 19:00etan egoera honi buruzko hitzaldia emango dute.

**usteak uste**

Mireia Bikuña

## Din, dan, don... Eguberri on!

Hamabost egun falta dira Gabonetarako. Horixe dio egutegiak, baina kalean aspaldi dituzte Gabonetako apaingarriak. Irratian entzun dut Donostiako Udalak Boulevarda eta Alder Ederreko zuhaitza argizatuko dituela bakarrik, eta batzuk haserre daude. "Hiri turistikoa da, eta argi gehiago behar ditugu!", diote. Oñatiko Udalak ere, krisiaren eraginez plazako zuhaitza jarriko du bakarrik. Gure herria ere turistikoa da, eta zuhaitzak gain, Foru plazak bestelako apaingarri batzuk beharko lituzke! Dena den, Eguberri on!

## Garraio publikoa autopistaz noizko?

Maria Dolores Akizu  
Aretxabaleta

Uztailetik gabiltza gai honekin bueltaka udaletxeekin, Lurraldearekin eta Foru Aldundiarekin. Biltzekoak zirela eta... bildu ei dira eta hona erantzuna:

"Hala, asmoa da zerbitzu batzuk autobidetik eskaintzea eta beste batzuk egungo ibilbidetik. Lehen kasuan, eta kontuan izanik linea Eskoriatzatik eta Aretxabaletatik igarotzen dela, beharrezkoa da bi herri horietan geltokiak jartzea AP-1 autobidea hartzea errazteko. Aretxabaletako Udalak jada egin du Azbeko geltokia hobetzeko obra zibila.

Eskoriatzari dagokionez, zain gaude Udalak zein erabaki hartuko duen AP-1 autobidearen sarbidearen inguruan egin beharreko lanei buruz, han geltoki egoki bat jartzeko. Nolanahi ere, Udalaren arabera biribilgunearen inguruan gelditzea erdiguneko herritarrentzat urrun samar gelditzen da eta Pesak, berriz, ez du bideragarritzat jotzen ibilbidea herrian zehar luzatzea, linearen zerbitzu-denbora luzatu egingo delako.

Behin arazo horri buruzko erabakia hartu eta Eskoriatzaren obra zibila eginda, zerbitzuak berrantolatu egingo dira. Hala, erdiak, gutxi gorabehera, autobidetik eskainiko lirateke eta gainerakoak ohiko ibilbidetik".

Hori horrela, hainbat galdera datorkigu burura: Zergatik itxoin behar dugu Eskoriatzak geltokia egin arte? Eskoriatzako herritarrei urrun samar gelditzen ei zaie, baina baita Aretxabaleta eta Arrasateko herritar askori ere.

Pesak ez duela bideragarritzat jotzen ibilbidea herrian barrena luzatzea, linearen zerbitzu-denbora luzatu egingo delako? Eta Arrasateko autopista-sarbidera joateko, zer egiten du ba? Astakeria handiagorik!

**gutunak**

Atzera bidea, non, aurrera egingo balu hara orduko Aretxabaletan legoke eta kilometro bitara Eskoriatzian, orduan... eta bueltan berdin.

Hau guztia ez da denbora arazoa bakarrik, uste dugu Aretxabaletatik edo autopistatik joan, badagoela alde. Ala ez, jaunak?

Eta zerbitzu batzuk? Zergatik ez Arrasatek atera-tzen diren guztiak? Hemen ere kategoriak al daude?

## Aurten Durangon, Azoka Telebista ederra!

Mirian Larrañaga  
Bergara

Durango azokan izan gara asteburuan. Urteroko zita. Gabonetako oparietarako erosketak egiteko aprobetxatu dugu: diskoak, liburuak, jokoak...; eta, bide batez, euskal kulturaz zipiritindu eta gozatzeko, sortzaileak eurak

bertatik bertara ikusi, haiekin berba egin eta autografo batzuk eskatzeko... eta lagun batzuk agurtzeko.

Krisiaren urtea izan dela diote hedabideek; gure poltsikoa urri dagoela igarri dute antolatzaile eta saltzaileek. Hala izango zen. Martitzenean egon ginen gu eta jende uholde-rik ez zegoela iruditu zitzaidan. Jendea bai, asko, baina ez beste urte batzuetan besteko jendetzarik. Agian, zerikusia izan du aurten feriak lau egun iraun dituela. Zeinek daki! Inpresio bat izan da, besterik ez.

Poztekoa da eta, gainera, nabarmentzea merezi du Azoka Telebistak. Oso ideia ona izan dute antolatzaileek eta eskertu behar zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari proiektua lagundu izana; haren babesari esker egin da. Eta poztekoa izan da, era berean niretako, ikusi eta jakin izana, Goienakoak ibili direla Azoka Telebista egiten.

Beste behin, debagoiendarrak ipini dugu gure hazia azokan eta nabarmendu egin gara, Ruper Ordorika, Gose edo Des-kontrol nabarmendu diren bezala, gehien saldu dutenen artean ei daude-eta. Zorionak, bada, debagoiendar kultura sortzaileak, eta azoka irudiz eta ahotsez jantzi duzuen Azoka Telebistako egileoi.

### IRAKURLEAREN GUTUNAK

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33  
20570 BERGARA



Posta elektronikoa:  
goienkaria@goiena.com



Telefonoa:  
943 25 05 01



Faxa:  
943 25 05 13

## ZUZENKETA

Joan den asteko GOIENKARIA argitaratu genuen gutun bat izenburu honekin: *Subentzioak xahutu, ekimen eza eta hitz hutsak*. Gutun hori zetorren sinatuta: Rosa Mondragonek (Aramaioko EAJren Uri Buru Batzarraren izenean). Baina Rosa Mondragonen ordez behar zuen Mertxe Mondragon. GOIENKARIA egiten dugunon akats bategatik argitaratu zen oker eta ez EAJren erruz; izan ere, Aramaioko EAJK ondo bidali zuen sinatuta gutuna, Mertxe Mondragonen izenean. Lerro hauen bitartez, barkamenak eskatu nahi dizkiegu, bereziki, Rosa Mondragoni eta Aramaioko EAJri, eta beronen izenean, Mertxe Mondragoni. Baita irakurle guztiei ere.

## Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarte - Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE  
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Monika Belastegi Saitetako arduradunak Leire Kortabarria (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Edu Mendibil (Goienka2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) Oinarriko diseinua Goio Arana Maketazioa Imanol Soriano Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Ixaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz Testuen zuzenketa Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

### EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12  
Posta-e: goienkaria@goiena.com

### ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00  
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABAETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09  
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 20.000 ale • Difusioa: 19.724 ale.



OID erakundeak  
ikuskatutako astekaria

### LAGUNTZAILEAK



Eusko  
Jaurlaritza



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Bergarako  
Udala



Oñatiko  
Udala



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Aramaioko  
Udala



Elgetako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak**  
**diruz lagundutako aldizkaria**





# Eibarko El Corte Inglés

Beste estilo bat eguneroko erosketetarako



## SUPERMERCATURIK ONENA

Espazio bakar honetan, produktu freskoetan kalitatirik onena eta janarietan ugaritasun paregabea aurkituko dituzu beti. Lehenengo markak eta gure lurreko produktu tradizionalak El Corte Inglés-en markako produktuen garantiarekin. Eta hori guztia preziorik onenetan.



EGO GAIN, 7. EIBAR

## ETA GOURMETAREN KLUBA EL CORTE INGLÉS-EN

Gourmetentzako denda handia munduko bazter guztietatik heldutako benetako delikatessen deritzenekin. Irandar kabiarrak, xanpain frantsesa, ezkur-urdaiazpiko iberiarra... Gastronomia-luxuok gozarazi egingo diete ahorik finenei ere.



ETENGABEKO ORDUTEGIA: 10 - 22. EROSKETA KARTA. EPEKAKO FINANTZAKETA/SALMENTA. ETXERA BIDALTZEA. BIDAI AGENTZIA. ASEGURO ZENTROA. KAFETEGIA... ETA EL CORTE INGLÉS-EN GARANTIA: KONFORME GERATU EZIK, DIRUA ATZERA ITZULIKO DA. GUREKIN HITZ EGITEKO: 901 122 122

[www.elcorteingles.es](http://www.elcorteingles.es)

INTERNETEKO DENDA HANDIA



## Liburutegidigitala

“Jakintza unibertsala,  
apaletatik zure ordenagailura.”

“Sabiduría universal, de la estantería  
a tu ordenador.”

“Sagesse universelle, de l'étagère  
à l'ordinateur.”



“Euskal kulturaren erabilera  
guztion ohitura izatea helburu  
duen bide orria.”

“La hoja de ruta que quiere convertir  
en costumbre cotidiana el uso de la  
cultura vasca.”

“La feuille de route qui veut changer  
en coutume quotidienne l'usage de la  
culture basque.”



# zure, gure, denon liburuak.

[www.kmliburuak.net](http://www.kmliburuak.net)



# Herriak

Arrasate > 10-11 Bergara > 12-13 Oñati > 14 Aretxabaleta > 15 Eskoriatza > 16 Antzuola > 17 Elgeta > 18 Aramaio > 19 Gatzaga > 19



> **ARRASATE**  
Mihiluze lehiaketa erraldoia egingo dute, hiru ordukoa, bihar > 10



> **BERGARA**  
Gabonetako kontzertua egingo du bihar, zapatua, Orfeoak > 13



> **OÑATI**  
Urteko azken odol-ateratzea egingo dute gaur arratsaldean > 14



> **ESKORIATZA**  
Atxorrotzen topatu zutena ikus daiteke, martitzenean hasita > 16

ARETXABALETA > KULTURA GESTIO PLANA

## Udalak aurreikusten du otsailerako kultura batzorde plurala osatzea

**AZPIBATZORDEAK** Batzorde hori talde txikiagoek osatuko dute, eraginkorra izan dadin

**URTARRILEAN** Udalak aurreikusten du datorren hilean bertan hasia azpibatzerdeekin lanean

**KRISIA, TRABA** 2010eko aurrekontuetan murrizketak izango dira, baita kulturen ere

XABIER URTZELAI > ARETXABALETA

Herriko bizitza eta bertako kultura dinamika eskutik joan daitezela Udalak abian jarritako prozesuak aurrera jarraitzen du. Elhuyar Aholkularitzak aretxabaletarrez osatutako hainbat lantaldean batutako asmo eta eskaerak txosten batean batu zituen, herriko kulturaren gaineko diagnostikoa egin zuen, eta hortik abiatuta Udalak eta Loramendi elkarteak plan estrategikoaren zirriborroa egin dute: "Lehenengo fasean herritarren ekarpenak jaso genituen, baina orain, egitasmo honek sinesgarritasuna izan dezan herritarren eskaera horiei erantzun egin behar diegu. Badakigu eskaera guztiak ez direla egingarriak izango, baina aintzat hartuko ditugu", adierazi du Inaxio Garro alkateak.

Hasierako diagnostiko horrek lau lan ildo zehaztu zituen: elkarlaneko egiturak sortu behar direla Udalaren eta kultura eragileen artean; Arkuperen kudeaketa herritik egin behar dela; herriko lokalak berrantolatzea egin behar direla; eta kultura eskaintza hobetu egin behar dela.

**KULTURA BATZORDEA OSATU**

Hori da plan estrategikoaren lehentasunetako bat, aretxabaletarrez osatutako kultura batzordea osatzea, eta batzorde horren ardura nagusietako bat izango da kultura eskaintza hobetzeko sortzen diren arazoak irtenbidea ematea: "Batzorde horren barruan azpibatzerdeak egongo lirateke, besteak beste, jai batzordea edota herriko kultura elkarte ezberdinak". Eta Garrok aurreikusten du otsailerako

batzorde hori osatuta egongo dela: "Plataforma hori osatzen denean zehaztu beharko da, besteak beste, herrian ze kultura eskaintza nahi dugun eta ze maiztasunekin. Lehenago, baina, batzordea osatu beharko da, eta Aratustek prestatzen ere hasi beharko dugu".

Aurreratu moduan, otsailerako aurreikusten dute batzorde plurala sortzea, baina datorren hilean bertan hasiko dira azpibatzerdeekin lanean: "Jai batzordeak jaien inguruan egitarau zabal eta parte-hartzailea osatzea izango du helburu, beste azpibatzerde bat da herriko kultura taldeak ordezkatzeko dituen eta sormen batzorde bat ere jaso dugu zirriborroan, kultura sormenaren alde lan egiteko gertu dagoen jendearekin osatuko dena. Horiek dira azpibatzerdeak, eta ondoren sortuko litzateke batzorde handi edo anitza".

**EKONOMIAK EZ DU LAGUNDUKO**

Aretxabaletako kultura taldeak eta kultura eskaintza kudeatzeko modurik onena abian jarrita ere, bistakoa da gaur egungo egoera ekonomiko txarrak baldintzatzen egongo duela dena: "Hori horrela da, bai. Oraindik ez dugu eztabaidatu datorren urtean ze aurrekontu izango dugun, baina, seguruenik, gizarte ongizatean izan ezik gainontzeko sailetan murrizketak egin beharko ditugu, eta kulturari ere tokatuko zaio. Hori horrela, nahiz eta kultura arloan plan berritzailea abian jarri, herritarren artean kohesio handia lortu... gero diru poltsak laguntzen ez badu, ba emaitza ez da bera izango".



Arkupe erreferente da Aretxabaletako kultura egoitza moduan, "baina kultura eskaintza Arkupetik haratago doa". XABIER URTZELAI



ZERBITZUAK &gt; AUTOBUSAK

# Bikoiztu egin gura dute urbano zerbitzua

Santamasetan eta Gabon jaietan autobus urbanoak hainbat aldaketa izango ditu, bereziki ordutegiari dagokionez

UBANE MADERA &gt; ARRASATE

Arrasate barruko autobus urbanoaren zerbitzua bikoizteko aukera aztertzen dabil Arrasateko Udala. Bestela esanda, orain urbanoa ordutik ordura pasatzen da noranzko bakoitzean, bada Udalak gurako luke ordu erdian behin izatea urbano zerbitzua. "Bagabil-

tza begiratzen, adibidez, zelako autobusak beharko genituzkeen zerbitzua bikoizteko, oraingoak baino txikiagoak akaso, edo zein erregai mota erabili beharko luketen autobusok (diesela, elektriko...)", kontatu dute Udaleko Obra eta Zerbitzu Saileko iturriek. Jakinarazi dute, baita ere, zerbitzu handitze horrekin Udalak lortu gura duena dela erabiltzaile gehiago lortu autobus urbanorako, "herri barruan dabilen automobil kopurua jaisteko".

AURREKONTUAREN ZAIN

Hori guztiori aztertzeo ikerketa egiten dabil Arrasateko Udala, batetik, udal teknikariek

eta, bestetik, "kanpoko enpresa bateko adituekin". Ikerketaren emaitza "laster" esku artean izango dutela aditzera eman dute, baina azpimarratu dute, era berean, autobus urbanoaren zerbitzua bikoizteko asmoa aurrekontuaren menpe dagoela.

GABONETAKO ORDUTEGIA

Urbanoaren gaur egungo zerbitzuari dagokionez, berriz, datozen asteotan hainbat aldaketa izango ditu, Santamas eta Gabon jaien eraginez.

Santamasei dagokienez, azkeneko zerbitzua ordubete lehenago aterako da abenduaren 22an; hau da, 20:00etan beharrez, 19:00etan. Eta ibilbideari dagokionez, Santamasetako azokaren antolaketaren arabera egokitu egin beharko dute; adibidez, Garibai azokarekin okupatuta bada, desbideratu egingo dute autobus urbanoa.

Gabon sasoiari dagokionez, berriz, abenduaren 25ean, urtarrilaren 1ean eta urtarrilaren 6an ez da urbano zerbitzurik izango. Eta jaiegun horien bezperetan, abenduaren 24an eta 31n, urbanoaren azkeneko zerbitzua ordubete lehenago bukatuko da, 19:00etan, beraz. Bestalde, domeketan, ohi duen moduan, ez da autobusik izango. Eta Gabonetako gainerako egunetan ohiko zerbitzua izango da.



Gazteak gustura Erdigunea Piztu ekimenaren lehen saioan.

TXATXILIPURDI

GAZTEAK &gt; TXATXILIPURDI

## Hiru orduko Mihiluze erraldoia bihar Kulturaten

12 eta 17 urte arteko gazteek osatutako 36 bikotek parte hartu ahal dute Mihiluzen

Zerbait gehiago jakin gura duenak, Arrasateko Mihiluze ikusi gura duenak edo Mihiluze erraldoian bertan parte hartu (lekurik balego) bihar, zapatua, dauka hitzordua, 16:30ean, Kulturateko areto nagusian.

U.M. &gt; ARRASATE

72 lehiakide eta sei aurkezle. Horiek dira Txatxilipurdik prestatutako Mihiluze erraldoiaren kopuruetako batzuk. Zifra gehiago ere baditu; besteak beste, irabazleendako sarienak: onak direlako, antolatzaileen esanetan: "Lau finalistendako, batetik, eta "irabazleendako sari potentea, Gabonetarako ondo etorriko diren opariak".

LEHEN SAIOAN, 80 GAZTE

Erdigunea Piztu ekimenaren bigarren saioa da biharkoa, eta hiru orduko lehiaketa prestatu du Txatxilipurdik. "Aurreneko saioan 80 gazte parte hartu zuten, eta horren arabera prestatu dugu bigarren hau", dio Lander Juaristi Txatxilipurdiko kideak. Iragarri du, baita ere, lehiaketaren ostean (19:30) break eta rap saioa izango dela.

LURRALDEBUS

## Eskualdeko Ospitalean ere geratuko dira

Bergararik Eskoriatzarako noranzkoan datorren Lurraldebus zerbitzua aldatu egingo du ibilbidea, Debagoieneko Ospitaletik pasatu eta han ere geratu ahal izateko. Nafarroa etorbideetik sartu eta Mankomunitatearen ondoko biribilguneetik Gelmako etxeetarako noranzkoa hartu, eta zubian geratuko da. Gero, handik aurrera egin eta Gelmako etxeetatik pasa ostean, Gipuzkoa etorbideko biribilgune berria hartu eta Garibairantz egingo du, Garibaiko geltokira iristeko.

"Kalkulatu behar zuten ea zenbat denbora behar zuten ibilbide hori egiteko; kalkulatu dute, eta ikusi dute posible dela; Diputazioarekin ere berba eginda dago. Horrela, pentsatzen dugu urte berriarekin hasiko direla zerbitzu hori ematen", kontatu dute udal iturriek. Bestalde, gaineratu dute Gelmako zubiko geltokia "behin-behinekoa" izango dela; beste kokagune bat aztertzen dabilta, ospitaletik gertuago dagoena. Eskoriatzatik Bergarako noranzkoa egiten duen zerbitzua, berriz, Zerrajerako etxeen aurrean geratzen da.

**PATXI CASTRO**



Era guztietako aulkien konponketa  
Tapizatu lanak  
Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta  
Besaulki, mahai, saskiak e.a


**943 78 71 65**  
**639 01 69 69**

**ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA**

- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

**PUB HAIZEA**



arrasate

arbolapeta



arrasate

**beinke**

**BASATI TABERNA**



943 711762

*Sili Sili*

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82



KULTURA > HAUR ANTZERKIA

## Liburu batek ateak ireki dizkien lau gizonen istorioa

'Alegiazko liburua' antzezlan izango da bihar Amaia antzokian, 17:00etan

J.B. > ARRASATE

Kataluniako La Baldufa antzerki taldeak hurrei zuzendutako antzezlan interesgarria eskainiko du bihar, zapatua, Amaia antzokian (17:00). Enric Blasi, Emiliano Pardo, Carles Pijuan eta Carles Benseny aktoreak saiatuko dira haurrak aho bete hortz uzten.

### HIRU ISTORIO BATEN BARRUAN

Edozein hiritan bizi diren lau gizonen istorioa kontatzen du antzezlanak. Lau gizonak errutina berean bizi dira eta pentsaera bakarrekoak dira. Ez dago euren artean ezberdintasunik.

Baina egun batean, eta kasualitatez, lau gizonetako batek liburu bat eskuratuko du. Eta orduan, goitik behera aldatuko da protagonisten bizitza. Liburua irakurri ondoren atek irekiko dizkiote mundu berri bati: irudimenaren, abenturaren eta bidaiaren mundua. Hau da, hiru istorio baten barruan.



Jostailuen merkatuan denetarik jostailuak daude, eta, beraz, trukean jasotzeko aukera zabala izango da.

GOIENKARIA

TXATXILIPURDI > JOSTAILU TRUKEA

## Jostailuak berrerabiltzea, domekako trukearen helburua

Okendoko ludotekan egingo dute jostailuen trukea etzi, 10:00etatik 14:00etara bitartean

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Sei urte darozta Txatxilipurdik jostailuen trukearen ekimenarekin. Eta adierazi dutenez, "urtez urte gero eta arrakastatsuagoa" ari da izaten. Iaz, esaterako, 160 jostailu jaso zituzten ekimenaren antolatzaileek. Eta trukean 90 jostailu eman zituzten. Izan ere, askok jostailuak etxetik ateratzeko aprobetxatzen dute jostailuen bilketa, baina gero ez dira jostailuok trukean jasotzera gerturatzen.

Azaro erdialdean hasi ziren auzoz auzo jostailuak batzen eta orain, jasotakoa elkartrukatzeko ordua heldu da.

JOSTAILU GUZTIEK BALIO BERA

Jostailuen truke txartelak emango dizkiete bertaratzen direnei. Eta gero, jostailu truke azoka egiten dutenean, txartel hori erabiltzaileak beste jostailu bat eskuratu ahal izango dute. Hala, "jostailu guztiek balio bera izango dute;

baldintza bakarra da egoera onean egotea, eta osorik. Ez da onartuko sexu bereizketa edo indarkeriaren aldeko jarrerarik erakusten duen jostailurik", azaldu dute Txatxilipurdikoek.

"SALEROSKETA MASIBOIA"

Ekimenaren helburua da jostailuak berrerabiltzeko aukera ematea; hau da, jostailuak urtero erosi beharrean jostailu bera urtez urte etxe batetik bestera barreiatzea.

Gainera, Txatxilipurdikoek uste dutenez, "Gabonetako salerosketa masiboari" alternatiba eskaini behar zaio. Hau da, "modu ludikoan" salerosketa soila baino trukearen filosofia bultzatu beharra dago.

Hitzordua domekan izango da Okendoko ludotekan, 10:00etatik 14:00etara.



Irudian, bihar Amaian (17:00) izango den antzezlanaren une bat.

GOIENKARIA

## ORDUTEGI BERRIA

Astelehenetik ostiralera  
(ordutegi jarraitua)  
**9:00etatik 20:30era**  
Larunbatetan  
**10:30etik 13:30era**  
**16:30etik 20:30era**

Sukalde alemanak

3.290 eurotik aurrera

**beitia**  
living & home

>> Etxerako guztia

Paraguay kalea, 34 (Boulevard ondoan), Gasteiz | Tel.: 945 121 399 | 945 254 588 | Faxes: 945 206 022 | www.grupobeitia.com



&gt; HITZALDIA

**Wolframioaren aurkikuntzaz eta hark izandako oihartzunaz berba egingo dute hilaren 17an**

*Wolframioaren aurkikuntzaren historia eta oihartzuna* delako hitzaldia egingo du Pascual Roman Polo EHUko Kimika Organiko katedradunak eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko kideak. Hitzaldia izango da hilaren 17an, eguena, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan. Gai horren gainean antolatutako erakusketa ere ikusgai dago hilaren 20ra arte osoko bilkuren aretoan, lanegunetan, 18:00-20:00 ordutegian eta jaiegunetan, 12:00-14:00 ordutegian.

&gt; HITZALDIA

**Gotzon Barandiaranek kulturagintzaz jardungo du hilaren 16an, eguaztena, kultura etxean**

Gotzon Barandiaran idazleak *Sortu, jaso, zabal zazu. Kulturagintzaz* delako hitzaldia egingo du hilaren 16an, eguaztena, 19:00etan, kultura etxean, Jardun euskara elkarteak antolatuta.

Bestalde, bihar, zapatua, Angiozarrera eramango du Jardun elkarteak jolasleku ibiltaria. 17:00-19:00 ordutegian izango da, Angiozarko pilotalekuan.

&gt; MERKATARITZA

**Gabonetako zozketako txartelak banatzen hasi dira dagoeneko Bedelkar elkarteko dendak**

Bedelkarko dendak hasi dira dagoeneko Gabonetako zozketarako txartelak banatzen. Hain justu, erosketa dendotan egiten dutenei emango dizkiete txartelak eta zozkatuko dituzte –urtarrilaren 8a da zozketa eguna– 500 euroko bi sari eta 250 euroko lau. Bestetik, erosketak Bedelkar txartelarekin ordainduz gero, 50, 20, 10 eta 5 euroko sariak ere irabaz daitezke abenduan barrena.

&gt; HITZALDIA

**Errespetuzko komunikazioaren gaineko hitzaldia egongo da datorren eguenean, hilaren 17an**

*Errespetuzko komunikazioa: bizitzarako komunikazioa* izeneko hitzaldia egingo du Nerea Mendizabal psikopedagogo eta Esnearen Ligako kideak.

Abenduaren 17an, eguena, izango da hitzaldi hori, 17:00-19:00 ordutegian, Aranzadi ikastolan. Hitzaldia antolatu du Aranzadi ikastolak.



Erakusketa inauguratu zuten egunean aurkeztu zuen Elkoroberezibarrek On Serafinen gaineko liburua.

GOIENKARIA

KULTURA &gt; BALORAZIOA

# Serafin Esnaolarena izan da erakusketa ikusiena

3.182 ikuslerekin, aurten Aroztegi aretoan egin den erakusketarik bisitatuena izan da

MONIKA BELASTEGI &gt; BERGARA

Serafin Esnaola zenak Bergarako egonaldian (1964-1992) ateratako argazkiekin Miguel Angel Elkoroberezibarrek eta Udal Artxibak elkarlanean antolatutako erakusketa erabat arrakatsua izan da, eta urteko ikusiena, gainera: 3.182 lagunek ikusi dute.


Udal ordezkariak "oso pozik" daude erakusketak izandako erantzunarekin eta Miguel Angel Elkoroberezibarrek egingandako lana "txalogarria" dela ere esan dute, beste gauza batzuen artean, "70eko eta 80ko hamarkadetak herriko bizitza islatzen jakin izan" duelako.

Bestalde, Elkoroberezibarrek egindako *Serafin Esnaola, herri-gintzaren erretratua* liburuari dagokionez, oso ondo saldu dela –450 ale inguru artxiboan eta Aroztegin– azaldu dute udal iturriek eta gogora ekarri dute eskuragarri dagoela artxiboan eta Elkar liburu-dendan. Elkoroberezibar bera ere oso pozik dago erakusketak zein liburuak izandako harrearekin eta eskerrak eman nahi dizkie lagundu dioten guztiei.

Gabonetan zure oparia...

# JUNBIJU

Gazteentzako  
Arropak eta osagarriak



Barrenkale 14, BERGARA TEL.: 943 76 97 56

## ARANE KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.  
BERGARA  
Tel.: 943 76 74 09  
670 483 903



**ARRI**  
Industri hornidura  
Latigilloak

Telleria 2, BERGARA  
Tel.: 943 76 19 04  
Faxa: 943 76 43 03  
Sakelakoa: 656 78 64 84

**itxar**  
hanburgestatgia

**Hanburgesa roquefort**  
saltsarekin proba ezazu!

**Leikeim**  
garagardo festa  
Abenduaren 12an, zapatuan.  
17:00etatik 20:00ak arte.

Fraiskoziuri 4 (Frontoiaren ondoan) Bergara 943 76 40 93

trinmer  
telecomunicaciones

tdt  
televisión digital terrestre

**Bergaran ere badago  
Lurreko Telebista Digitala!**

Kontsulta iezaguzu eta soluzio onena eskainiko dizugu, ez itxaron gehiago eta alda zaitetz TB digitalera.

**TRINMER 20 urte antenetan**  
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne

TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305  
Egogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR  
Tel.: 943 12 73 50 – 943 10 89 43 | Faxa: 943 20 73 60  
antenas@trinmer.com | www.trinmer.com



KIROLA > ESKUBALOIA

## Sailkapeneko bigarrenaren kontra jokatu du Bergarak

A.E. > BERGARA

Josetxo Muniategiren mutilek Eibarko Haritzaren aurka neurtuko dituzte indarrak zapatuan, 17:00etan, Eibarren.

Sailkapenean bigarren den Eibarren aurka punturen bat ekartzea zaila izango den arren, mahoneroak ahaleginu egin-

go dira. Aste bukaerakoa 10. jardunaldia izango da.

**ZORTZI PUNTU**

Muniategiren mutilak sailkapenean 7. postuan daude eta zortzi puntu dituzte. Eibarkoak, oster, bigarrenak dira 14 punturekin.

> ZINEMA

### Zapatuan eta domekan Zabalotegin 'El curioso caso de Benjamin Button' filma eskainiko dute

Zapatuan eta domekan, 17:00etan, *Los mundos de Caroline* filma emango dute Zabalotegin. Helduendako, oster, zapatuan 19:30ean eta 22:30ean eta domekan 19:30ean *El curioso caso de Benjamin Button*. Zineklubari dagokionez, hilaren 17an, eguna, *La ola* filma emango dute Zabalotegin, 20:00etan. Bestalde, gaztetxean *Días de radio* eskainiko dute etzi, domeka, 18:00etan.

> ERAKUSKETA

### Filatelia eta numismatika erakusketa ikusteko azkeneko eguna domeka izango da

Domekan itxiko ditu ateak Filatelia eta Numismatika Elkarteak Aroztegin jarri duen erakusketak. Gaur, 18:00etatik 20:30era; bihar, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domekan 12:00etatik 14:00etara egongo da irekita aretoa.

Denera, 35 panel jarri dituzte. Aipatzekoak dira pilotari buruzko zazpi panelak eta baita Vatikanuari buruzko txanponak ere.

MUSIKA > KONTZERTUA

## Gabonak badatozela gogoratuko digute Orfeoikoek, abestuta

Aitor Biainek zuzenduta, kontzertua izango da bihar, zapatua, 20:00etan, Mariaren Lagundian; Gabon doinuak abestuko dituzte

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Gabonen usainean, Bergarako Orfeoia kontzertua egingo du bihar, zapatua, Mariaren Lagundian. Ohitura bilakatu den Gabonetako Kontzertua izango da. 20:00etan hasiko da, Aitor Biainen zuzendaritzapean, eta ordu bete luze iraungo du.

**'BIJINA MAITE'**

Gorka Unamuno tenoreak irekiko du kontzertua. Unamunok Michael McGlynnen *Media vita* lana eskainiko du. Ondoren, Nere Ibarra, Isabel Juldain eta Eneritz Madariaga sopranoek *A Christmas Round* Gabonetako kantua abestuko dute. Kontzertuak jarraituko du *Ding Dong! Merrily on high*, *Jingle Bells* eta *Izartxo bat* abestiekin.



Bergarako Orfeoia.

GOIENKARIA

David Azurtza tolosarrak konpondutako *Birjina maite* eta Julio Dominguezek konpondutako *Manolito Chiquito* abesti herrikoiekin amaituko da lehenengo zatia.

**BIGARREN ZATIA**

*The Twelve Days of Christmas* abestian jardungo dute Nere Ibarra eta Isabel Juldain sopranoek; Ainara Uribesalgo altuak; Carlos Etxaniz baxuak; eta Aritz Gallastegi, Gorka Unamuno, Julen Alberdi eta Fran Martinez

laukoteak. Abesti hori izango da kontzertuaren bigarren zatia eta azkena.

Musikarekin laguntzen ibiliko dira Eli Mendaraz pianoan eta Oihan Vega perkusioan.

**GABONETAKO KONTZERTUA**

Orfeoia beste kontzertu bat eskainiko du abenduaren 19an. Frontoian izango da, 22:30ean hasita. *Adiemus*, *Usaiak*, *Fame* eta *Joyful*, *Joyful* abestiak eskainiko dituzte, herriko beste abesbatza eta musika taldeekin.

## ARGENTINAKO JOSÉ C. PAZ herrirako elkartasuna JOSTAILU ETA HAURREN OINETAKO BILKETA

*Olentzerok zakua zimurturik dakar ez baitu ezer jaso bideetan zehar, guri laguntza eske dator bidenabar eta ez al diogu zerbait eman behar?*

*Ikazkinari zaio nekea nabari begirune apur bat zor diogu hari, eska diezaiogun atariz atari barruan daramagun esku zabalari.*

*Neska-mutilok jarri gara akorduan opari zaharrak bilduz etxe inguruan. Zuretzat, Olentzero, eraman orduan: guk ez ditugu behar, banatu munduan!*



**Abenduaren 19an,  
San Martin plazan  
(goizez)**



ARANZADI

ikastola Kalitatezko Euskal Heziketa



JENDARTEA &gt; OSASUNA

# Gaurko deialdiaren aurretik 566 odol-ateratze egin dituzte

Txantxiku ikastolako hainbat gelatan egongo dira mediku eta erizainak 18:00etatik 20:00etara

MIREIA BIKUÑA &gt; OÑATI

Oñatiko odol-emaileen elkarteko ek antolatutako urteko azken odol-ateratzea egingo dute gaur. Donostiako mediku eta erizainak Txantxiku ikastolako hainbat gelatan egongo dira 18:00etatik 20:00etara.

Beste behin, dei berezia egin gura diete herritar guztiei. "Oñatiko odol-emaileen kopurua nahiko ona da, baina urterik urte jaisten doa. Horregatik, dei berezia egin gura diegu odol-emaile potentzial direnei. Urtero, adina-

rengatik edo gaixotasunengatik asko dira *erretiroa* hartzen dutenak, eta horiendako erreleboa behar dugu. Hori da dugun erronka nagusia". Aurtengo deialdi-tan 23 odol-emaile berri egin dituzte.

DEIALDI TXARRENA, APIRILEKOA

Oraingo, gaurko datuak kontuan hartu barik, urtean zehar egindako bederatzi deialdietan hiler bat, uztailen eta abuztuan izan ezik—566 odol-ateratze egin dituzte (iaz, 652 egin zituz-

ten); batez beste, 63 ateratze. Hilabete onenak martxoa (84) eta iraila (84) izan ziren; aldiz, apirila izan zen eskasena, 39rekin. "2009ko hilabete eta aspaldiko urteetako deialdirik txarrena izan zen. Errekor guztiak hautsi genituen!", diote odol-emaile taldekoek.

Dena den, datu horiek Oñatiko ordezkariak dituzten datuak dira. "Gurera etortzen direnak bakarrik zenbatzen ditugu, baina jakin badakigu beste askok enpresetan, unibertsitatean eta ikastetxeetan odola ematen dutela. Hortaz, odola zenbat oñatiarrek ematen dute jakitea ezinezkoa da", diote.

DATORREN URTEKOAK

2010ean beste hamar deialdi egingo dituzte, baina egutegia zehaztu barik dute oraindik. Odol-emaile guztiak gutun bidez jaso dute etxean odola noiz eman dezaket.

## Odol-ateratzeen datuak hileka

Urtarrila	52	Ekaina	63
Otsaila	72	Iraila	84
Martxoa	84	Urria	66
Apirila	39	Azaroa	61
Maiatza	45		



Hainbat oñatiar, odola ematen Txantxiku ikastolako areto nagusian.

KONTZEJUPETIK

MUSIKA &gt; EMANALDIA

## Herriko abesbatzak, musika banda eta musika eskolakoak Gabonetako kontzertuan

Mikel Goiaingerua parrokiari bilduko dira guztiak domekan 19:00etan

M.B. &gt; OÑATI

Urtero moduan, Gabonetako kontzertu erraldoia prest dute herriko musikariek; hain zuzen ere, domekan egingo dute. Udal Musika Bandako, Oñati abesbatzako, parrokiako koruetako, Ganbara abesbatzako, Txantxiku Ikastola abesbatzako, Ganbara Txiki abesbatzako eta Jose de Azpiazu musika eskolako kideak San Migel parrokiari elkartzeko dira 19:00etan.

BUKAERAN, DENOK BATERA

Kontzertua hasteko, Iñazio Ibarrodok zuzentzen duen musika bandak bi pieza eskainiko ditu. Ondoren, Ganbara Txiki eta Ganbara abesbatzen eta Jose de Azpiazu musika eskolako ikasle-en txanda izango da.

Kontzertuaren bigarren zatian, talde guztiak elkarrekin abestuko dute musikarien laguntzarekin. Alde batetik, lau Gabon kanta abestuko dituzte, eta beste alde batetik, bost euskal kantu; eta, bukatzeko, *Agur, jaunak*.

Bestalde, domekako kontzertuaren sarreran, Beningo (Afrika) Natintingon hirian eraikitzen diharduten eskolarako dirubilketa egingo dute.

### Kontzertuko gitarrak

MUSIKA BANDA

> *Pastime with good company*  
King Henry VIII /  
Konponketa: P. Sparke

GANBARA TXIKITXO,  
TXIKI ETA GAZTE

> *Lau euskal abesti*  
> *Binbili bonbolo*  
> *Iruten*  
> *Xarme*

GANBARA GAZTE  
ETA GANBARA ABESBATZA

> *I'm going up a yonder*  
Konponketa: M. Sirtvatka  
> *Iste confessor*  
D. Scarlatti  
> *In paradisum*  
P. Barker

JOSE DE AZPIAZU  
MUSIKA ESKOLA

> *Un americano en Paris*  
George Gershwin  
> *White Christmas*  
Irving Berlin

MUSIKA BANDA  
ETA ABESBATZAK

> *Adeste fideles*  
J. Reading  
> *Cantique de Noel*  
Adolphe Adam  
> *Jesus Christ Superstar*  
Lloyd Webber  
> *Jingle bell rock*  
Jo Beal and Jim Boothe

JAIALDIA

> *Guk euskaraz*  
> *Maite, maite, maitiak*  
> *O, Peio, Peio*  
> *Nere herriko neskatxa maite*  
> *Agur jaunak*

&gt; ELKARTASUNA

### Elkar Heziko azoka solidarioan 12 GKEk parte hartuko dute

Elkar Heziko irakasle eta ikasleek antolatuta, azoka solidarioa egingo dute biher herriko plazan. 12 GKE egongo dira 10:00etatik 15:00etara euren produktuak saltzen eta esku artean dituzten proiektuen gaineko informazioa ematen.

Bestalde, haima-gunean tea hartzeko eta hainbat ekinztatan parte hartzeko aukera egongo da. Azokan batutako dirua GKE guztien artean banatuko dute.

&gt; ELKARTASUNA

### Hermansoloña taldearen aurkezpena egingo dute gaur

Hermansoloña gobernu kanpoko erakundea gaur aurkeztuko dute kultura etxean, 18:30ean. Ekitaldiak ordu bate iraungo du eta GKE berriaren gaineko informazioa emango dute; besteak beste, nortzuek osatzen duten taldea, Argentinan egiten duten lana, GKE berriaren nondik norakoak, eta eskertzak. Hermansoloñako ordezkariak herritar guztiak gonbidatu gura dituzte.

&gt; GAZTEAK

### Ganbara Gazte eta Ganbara abesbatzen kontzertua gaur

Ganbara Gazte eta Ganbara abesbatzek kontzertua egingo dute gaur, 20:15ean Agustindarren elizan.

Lehen lehenik, Ganbara Gaztekoek egingo dute saioa. Guztira, bederatzi kantu abestuko dituzte. Ondoren, Ganbarakoen txanda izango da. Esteban Urtzelairan zuzendaritzapean zazpi kantu abestuko dituzte. Bukaeran bi abesbatzek elkarrekin abestuko dute *Iste Confessor* eta *In paradisum*.

&gt; DEIALDIA

### Hilaren 19ko manifestaziora joateko autobusa Oñatitik

*Egunkaria libre!* lelopean Bilbon egingo duten manifestaziora joan gura dutenek Oñatitik autobusean joateko aukera izango dute. Txartelak zortzi eurotan eros daitezke Guria, Izarraitz, Arrano eta Luis tabernetan. Autobusa 15:30ean irtengo da postetxetik. *Egunkaria* auziko epaiketaren kontrako eta auzipetuen aldeko manifestazio erraldoia egin gura dute hilaren 19an Bilbon.





Ladrillos-i eskaini dioten egutegiko azalean agertzen den argazkia.

ARGAZKI ARTXIBOA

KULTURA > ARGAZKI ARTXIBOA

## 'Ladrillos' da Udalaren egutegiko protagonista

3.000 ale atera dituzte eta etxez etxe dabilta banatzen egunotan; Arkupe kultura etxean ere egongo dira herritarrek eskuratzeko moduan

M.A. > ARETXABALETAK

Egunotan dabilta banatzen etxez etxe Udalak argitaratu duen egutegia. Jesus Errasti *Ladrillos* da bertako protagonista. *Ladrillos*-en familiak Udalaren argazki artxiboaren esku

utzitako erretratuekin osatu dute 2010eko egutegia.

Aretxabaletarrek badakite mozorrotzea zuela zaletasun *Ladrillos*-ek eta makina bat barre egindakoak dira hark asmatutako ikuskizunekin. Aratusteetan

eta abuztuko Andramari jaietan –hirugarren egunean– zuen mozorrotzeko ohitura eta mozorro haietako batzuk jaso dituzte egutegian. Ezagutu zutenei hamaika oroitzapen ekarriko dizkie egutegiak.

ASTOEKIN

Hiru zatitan banatu dute egutegia: lehenengoan, kalean egindako agerraldiak jaso dituzte; bigarrenean, etxekoen parte-hartzea; eta hirugarrenean, *Ladrillos* bera bakarrik. Suhiltzaile, udaltzain, Zesar... eta beste makina bat mozorro jantzi zituen. Gainera, agerraldi guztietan izaten zituen lagun astoak, argazkietan ikusten denez.

Azken urteotan argazki artxi-boak argitaratzen duen egutegia oso gustuko dute herritarrek: batetik, erretratu zaharrak jasozten dituelako; eta, bestetik, herritarrek direlako protagonista. 2009an, esaterako, emakumeak izan dira. 3.000 ale atera dituzte etxez etxe banatzeko, eta Arkupe kultura etxean ere egongo dira.

> XAKEA

### Euskadiko txapelketa jokatzeko sailkatu da Alcaide

Abenduaren 5ean bukatu zen Zarautzen jokatu duten Gipuzkoako xake txapelketa, eta Aitor Alcaide aretxabaletarra hirugarren postuan geratu da. Inigo Galartza donostiarra izan zuen aurkari azken partidaren eta irabazi egin zion: "Zortea izan dut, gainera; aurkari zuzenek berdindu egin dute, eta, ondorioz, hirugarren postuan geratu naiz", azaldu du Alcaidek.

Hala, Euskadiko xake txapelketarako sailkatu da Arlutz taldeko kidea. Datorren urteko Pazko astean jokatu dute hori, baina aurretik –urtarrilean– liga hasiko da eta aurreten ohorezko mailan izango da, berriro, Arlutz.

> ERRETIRATUAK

### Omenaldia egingo diete 90 urteko bazkideei domekan

Basotxo erretiratuen elkarteak omenaldia egingo die etzi, abenduak 13 (17:00), aurreten 90 urte bete dituzten bazkideei. Santa Luziaren omenezko egunean izango da ekitaldia, Basotxon bertan, eta omenaldiaren ostean txokolate beroa eskainiko dute bazkide guztiendako.

Bestalde, abenduaren 21ean, astelehena, Santo Tomas eguna ospatuko dute erretiratuek Basotxon (17:00). Mokadutxo izango dute lehenengo, eta 40 opari zozketatuko dituzte gero. Ospakizuna aprobetxatuta, aurreten antolatutako kantu txapelketako sariak banatuko dituzte.



M.A.

## Gernika plazako txintxaunak berritzen

Aldiro egiten duten legez, berritzen dabilta egunotan Gernika plazan dauden txintxaunak. Legutien egoitza duen Lurkoi enpresako langileek eguaztenean kendu zituzten hainbat txintxaun, lantegira eroan eta bertan berritzeko: konpondu eta margotu.

Gernika plazako jolasparkea da orain herriko txintxaunik zaharrenak dituen; izan ere, iaz Bedarreta auzokoak eta Kurtzebarri eskola albokoak aldatu zituzten, eta aurreten, Lausittakoak.

## oharrak

ZINEMA

### > 'Los hombres que no amaban a las mujeres' eta 'Pony en el acantilado' filmak

Helduek *Millenium* saileko lehen filma izango dute eta umeek domekan (17:00) Ponyo pertsonaiaren abenturak.

IPIUIN KONTAKETA

### > 'Goazen itsasora', bihar liburutegian

Iker Diaz kontalariak *Goazen itsasora* delako emanaldia egingo du, umei zuzenduta, bihar (11:30) liburutegian. Debalde da.

ELKARTASUNA

### > Martuteneko presoer bidaltzeko produktuak jasotzen

Astelehena bitartean jasoko dituzte parrokiaren presoendako produktuak: barruko arropak, garbitasunerako xaboiak eta hortzetako pasta, telefonoz deitzeko txartelak...

DANTZA

### > Dantza ikuskizuna

Astelehenean eskainiko dute Leizarra musika eskolako ikasleek dantza ikuskizuna (18:30-19:30), Arkupen.

FLAUTA

### > Flauta emanaldia

Martitzenean, hilak 15, egingo dute Leizarra musika eskolako ikasleek flauta emanaldia (19:00), Arkupen.

PIANOA

### > Piano emanaldia

Eguaztenean, hilak 16, egingo dute Leizarra musika eskolako ikasleek piano emanaldia (19:00), Arkupen.

DEIALDIA

### > Batzar orokorra Murruxikok

Abenduaren 18an egingo du Murruxiko Mendizale Elkarteak batzar orokorra Durana kaleko egoitzan (19:00).



KIROLA &gt; FRONTENISA

## Bihar hasiko den txapelketan 24 lagun lehiatuko dira

Multzoak hirunaka osatu dituzte eta partiduak datozen bi asteburuetan jokatuko dira

M.B. &gt; ESKORIATZA

Harrera ona izan du bigarren urtez antolatu duten frontenis txapelketak. Antolatzaileek azaldu digutenez, 24 lagunek parte hartuko dute eta azpimarratu dute aurten neska batek ere eman duela izena.

Aurreko urtean bezala, multzoak hirunaka osatu dituzte, horrela partaide bakoitzak gutxienez bi partidu jokatuko ditu-eta. Txapelketa bihar, zapatua, hasiko da. Lehen faseko norgehiagokak jokatuko dituz-

te, 09:30etik iluntzera arte. Domekan, berriz, bigarren fasea pasatukoak lehiatuko dira. Partiduak 10:00etan hasiko dira eta 13:00ak arte orduko jokatuko dituzte. Arratsaldekoak 16:00etan hasiko dira.

**FINALA, ABENDUAREN 20AN**

Finalerdiak hilaren 19an izango dira, 11:00etan eta 12:30ean; eta abenduaren 20an, 3. eta 4. posturako lehia (12:00) eta final nagusia (13:00) jokatuko dituzte jokalariek onenek.

KZGUNEAK &gt; GABONAK

## Bost e-book zozketatuko dituzte datozen egunotan

M.B. &gt; ESKORIATZA

Gabonak datozela-eta, KZgunean 5 e-book (liburu elektronikoa) zozketatuko dituzte. Hango dinamizatzaile Aitor Madrideren esan duenez, zozketan parte hartu nahi dutenek Olentzerori gutuna idatzi beharko diote abenduaren 22a baino lehen.

Interesatuak 18 urtetik gorakoak badira, ez dute aparteko baldintzarik bete beharko; KZgune-ko erabiltzailea izatea baino ez. Oraindik izena emanda ez dute-

nek, berriz, KZgune batera joan beharko dute eta han alta eman. Eskutitza idazten duena adin txikikoa bada, heldu batekin lagunduta egon beharko du.

**EMAITZAK, WEBGUNEAN**

KZgune guztietan jasotako eskutitzen artean, esan bezala, bost e-book zozketatuko dituzte. Sari-dunekin harremanetan jarriko dira eta zozketaren emaitzak [www.kzgunea.net](http://www.kzgunea.net) webgunean jakinaraziko dituzte.

### oharrak

UMEAK

> **Olentzero erraldoia egingo dute gaur ludotekan**

Egubakoitzeko ekintza berezien harira, gaur Olentzero erraldoia egingo dute Tortolis ludotekan, 18:00etatik 19:30era.

GAZTEAK

> **Film laburren tailerra dago egunotan gaztelekuan**

Gaurtik domekera bitartean, film laburren tailerra egingo dute herriko gaztelekuan. 17:00etan hasiko da esandako tailerra.

INGURUMENA

> **Beira birziklatzeko kanpaina**

Ecovidriok beira birziklatzearren gaineko karpa informatiboa jarriko du bihar herriko plazan, 11:00etatik 14:00etara. Opari bana egongo da joaten direnendako.

KIROLA

> **Asteburuko kirol hitzorduak**

Bihar, zapatua, junior mailako nesken saskibalo partidua egongo da Intxaurtxuetan, 16:00etan. Etxeakoak Easo Loyola Aibak taldekoen kontra lehiatuko dira. Domekan, bestalde, gazte mailako areto-futbol partidua jokatuko dute eskoriatzarrek zaraustarren aurka.

UMEAK

> **Filma dago etzi Ibarraundin**

Etzi, domeka, umeendako *Shin Chan-Spa Wars* filma dago Ibarraundi museoa, 17:30ean. Filmak ordu eta erdi iraungo du eta sarrera euro bat da.



Besteak beste, errotarri bat topatu dute indusketetan.

GOIENKARIA

ONDAREA &gt; IBARRAUNDI MUSEOA

## Ikusgai egongo da Atxorrotzen topatutakoa

Martitzenean, 19:00etan, indusketa arkeologikoen gaineko hitzaldia eta erakusketa izango dira

MIRIAN BITERI &gt; ESKORIATZA

Atxorrotzen egindako indusketa arkeologikoetan topatutako elementuak oraindik aztertzen badihardute ere, martitzenean horiek gertutik ikusteko aukera izango dute herritarrek, Ibarraundi museoa. Udalak lanok gizarteratzeko beste pauso bat eman gero du urtarrilaren 15era arte jarriko duen erakusketarekin.

Jakina denez, urriaren lehen hamabostaldian, Larrate indusketa-entresako hiru aditu Atxorrotz mendiko gaztelu zaharren eta, orain, han topatutakoa erakutsiko dute. Besteak beste, ondo landutako errotarria ikusi ahal da; baina baita indusketetan agertutako bestelako elementuak ere, hala nola balezta-punta bat, lantza bat, ezpata bat, txanponak eta fauna aztarna asko. Gauza horietaz gain, indusketa arkeo-

logikoen gaineko informazioa eskainiko dute, panelen bidez.

**ONDORIOAK AZALDU**

Erakusketa inauguratu aurretik, gainera, hitzaldia egongo da toki berean. Atxorrotzen lanean jardun zuten Iñaki Sagredo eta Nahia Senper arkeologoek indusketan aurkitutakoak eta ondorioak azalduko dituzte, 19:00etan.

**ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**

Esan bezala, erakusketa urtarrilaren 15era arte egongo da ikusgai, honako ordutegian: astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Ibarraunditik esan digute asteburuetan eta jaiegunetan itxita egongo dela; baita abenduaren 24an, 25ean eta 31n eta urtarrilaren 1ean eta 6an ere. Abenduaren 22an, berriz, goizez bakarrik bisitatu ahal da.



# Zenbaki Aholkulariak



#### • Juridikoa:

- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ...
- Penala: Hutsegite epaketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigorzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...

- **Laborala:** Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioak, ...
- **Fiskala:** Etxebizitzaren salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak, ...
- **Kontalibiltatea:** Pertsona fisiko eta juridikoak, ...

Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABALETA. Tel.: 943 71 21 12 • [www.zenbaki.es](http://www.zenbaki.es)

# LENIZ

ESKORIATZA



■ **Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika**

■ **Bigarren eskuko autoen salerosketa, injektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa**

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45



> ERRETIRATUAK

## Landatxopen karta joko txapelketak datorren astean

Erretiratuen elkarteak karta joko txapelketa antolatuta datorren asteko. Abenduaren 14tik 17ra bitartean, puntto, mus, briska eta tute txapelketak jokatu dira. Parte hartu nahi dutenek abenduaren 12ra arte izango dute Landatxope elkartearen taulan izena emateko.

> JAIA

## Independentzia Eguneko txartelak domekara arte salgai

Domeka, abenduaren 13a, izango da Independentzia Eguneko bazkarirako txartelak erosteko azken eguna. Gaztetxean, Mox, Arin eta Surpe tabernetan eta Itzar liburu-dendan ipini dituzte salgai abenduaren 19ko babarrun-janerako txartelak 10 euroren truke.

> PILOTA

## Gaztetxoendako Gabon saria antolatu du Olalde elkarteak

Olaldek gaztetxoendako (7-14 urte) txapelketa antolatu du abenduaren 23rako eta 30erako. Parte hartu nahi dutenek martitzenetan edo eguenetan 18:00etatik 20:00etara bitartean frontoira joan behar dute. Bestalde, frontoi txiki txapelketako final-laurdenak zapatuan hasiko dira.

> ERAKUSKETA

## Umeen lan esplotazioaren gaineko argazkiak Olanaren

Bangladeshko haurren lan munduaren gainean Jose Alfonso argazkilariak ateratako argazkiak ipini dituzte ikusgai Olanaren. Intervida gobernuz kanpoko erakundeak ipini ditu. Abenduaren 12an eta 13an bisitatu ahal izango da erakusketa, 12:30etik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era.

MUSIKA > GABONETAKO KONTZERTUA

# Musika Eskolako emanaldia astelehenean

Torresoroako auditoriumean egingo dute emanaldia ikasleek abenduaren 14an 18:30ean

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA  
Musika Eskolan hezkuntza musikaleko edo instrumenturen bat jotzen ikasteko eskolak jasotzen dituzten Antzuolako neska-mutikoek kontzertua egingo dute abenduaren 14an, astelehenean, Torresoroan, 18:30ean.

Orain arte udaletxeko areto nagusian egin izan dute kontzertua, baina jende asko elkartzenenez eta Torresoroako auditoriu-

ma gertu dagoenez, aurten han egitea erabaki dute. Izan ere, neska-mutikoek senideak, lagunak eta ezagunak joaten dira emanaldira, eta, ikasleak 40 inguru izanik, entzule asko pilatzen da.

MUSIKA TRESNAK ETA AHOTSA

Ikasle mordoa pasako da taula gainetik eta askotariko doinuak entzun ahal izango dituzte kontzertura joaten direnek: kantu

herrikoiak gehienak, baina Elton Johnen abestiren bat, bluesen bat... ere eskainiko dituzte. Trikiti ikasleak izango dira nagusi, baina piano, gitarra, tuba, saxofoi, flauta, biolin, txelo eta akordeoi ikasleek ere jardungo dute.

Ahots teknikoak ikasleek *Oihanaren barnean* abestia eskainiko dute; Koraleko taldeak *Hamabe no uta* kantua; eta bi taldeek elkarrekin *Musikaz gozatz* abestia.

Hortaz, antzuolarrek ere musikaz eta abestiez gozatzeko aukera izango dute.



Ahots teknikoak eta koraleko ikasleek elkarrekin abestuko dute emanaldiko azken kantua Torresoroan.

MUSIKA ESKOLA

KIROLA > FUTBOLA

## Osasunako beteranoak Barkeroren omenezkoan

I.A. > ANTZUOLA

Urtarrilaren 2an ziren jokatzekoak Antzuolako futbolari beteranoak Xabier Barkeroren omenezko partidua, baina baliteke norgehiagoka atzeratzea. Osasunako beterano taldea ekarriko dute antola-

tzaileek, baina gorritxoek beste data bat proposatu dute: urtarrilaren 9a. Orain, Osasunakoek baieztatu behar dute egun horretan edo beste batean etorriko diren. Hala ere, Antzuolakoak hasi dira entrenatzen. Osasunako beterano-

en taldean lehen mailan jardundako Krutxaga, Martin Gonzalez, Bustingorri, Alfredo, Arozarena, Bikuña, Zabaleta, Lekunberri, Palacios, Etxeberria... daude.

ARETO FUTBOLA

Bestalde, abenduaren 28rako eta 29rako Alfonso Castoren omenez areto futbol txapelketa antolatu dute neska-mutikoendako. Abenduaren 20a baino lehen eman behar da izena Herri Eskolan edo liburutegian.

bere ustez



Antonio Deogracias

## 'Paperback writer', nobelagilea

Gehienok izan dugu inoiz liburu bat idazteko, edo gutxienez, bizitzan gertatutakoak betikotzeko tentazioa. Behin baino gehiagotan sentitu gara idazle eta esan diogure buruari badugula liburu bat idazteko adina material. Baina gero, pentsatzen dugu gure istorioek ez dutela interesik, eta alboratzen ditugu, inspirazioa iristen denerako.

Inspirazioa maitale baten modukoa da, zenbat eta atsegin gehiago ematen saiatu orduan eta gehiago urruntzen dira eta gehiago izorra-

**"Norbere istorioak irakurtzeak sentiarazten duen ongizatea infinitua da"**

tzen (ez literalki) gaituzte; eta borroka alboratzean gureki-ko interesa azaltzen dute.

Horregatik maitaleei ez zaie kasu askorik egin behar, joanez gero berriz itzuliko baitira. Baina inspirazioarekin ezin da gauza bera egin; gure istorioak paperean islatu nahi izanez gero eskuak arkatzera edo ordenagailura eraman beharra dago; musak bilatu beharra, aurkituko baititugu.

Norberak idatzitakoa irakurtzeak idazle titulua ematen du eta sentiarazten duen ongizatea infinitua da. Nor ausartuko da, idazle ez garelako esatera?

Entzuna dut mundu hau utzi eta lurrean zerbait idatzita utzi duzula jakitean San Pedrok parez pare zabaltzen dituela atek.

SUKALDEKO ALTZARIAK  
**Harizki**

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

**MUEBLES  
IGEA**

Sukalderako eta  
bainurako altzariak  
Altzari rustikoetan  
espezializatuak

**zabalo**  
IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo  
Kalegoi 9, 1. solairua  
ANTZUOLA.  
Tel. eta faxa:  
943 76 60 89

**ZAHAR BERRITZEAK:**

Fatxadak  
Bainugela eta sukaldea  
Lokal komertzialak  
Teilatuak



UDALA &gt; EGITASMOAK

# Estatu Fondoko dirua zertan erabili aztergai

Espainiako Gobernutik 113.513 euro espero ditu Udalak 2010ean

Abenduko Udaleko Hirigintza batzordean landuko dute gaia

LARRAITZ ZEBERIO &gt; ELGETA

Espainiako Gobernuaren Tokiko Inbertsioetarako Estatu Fondotik 113.513 euro espero ditu Elgetako Udalak. *Diru horrekin Udalak zein proiektu bultzatzea gustatuko litzaizuke?* Udal ordezkariak abenduko Hirigintza batzordean aztertuko dute gaia. Oxel Erostarbe alkateak herritarren iritzia eskatu du *Plaza barre-*

*nian* bere blogean. "Gure taldean hasi gara proposamen desberdinak lantzen. Gurako nuke jakin zure iritzia. Zer inbertsio egingo zenituzke diru horrekin?", irakur daiteke blogean. "Bururatu ahal zaizun dena ezin da egin dirulaguntza horrekin, baina ideia gehienak aurrera eramateko modua topatu daitekeela uste dut".

Aurten, 2009an, kiroldegiko eta Bolatokiko teilatuak konpondu dira Madrildik etorritako diruarekin, baita udaletxeko teilatua eta hormak ere.

E-planaren bigarren edizio honetan etorritako diruarekin osasun etxeko atea egoki daiteke, Bolatoki ondoan zaharkituta dagoen haurrendako jolasparkea berri daiteke edo udaletxeko leihoak alda daitezke. Eraba-

kia hartzeko dago, baina laster hartu behar da, epe bat dago-eta horretarako.

DOMINGO ITURBE PATRONATUA

Udalak mahai gainean duen beste proiektu garrantzitsu bat Domingo Iturbe patronatuaren eraikinarekin lotuta dago.

Aurrerantzean, Udalak ordezkari berria izango du patronatuko kideek egiten dituzten bilereetan. Ana Gillegik Iñaki Ugarte-buru ordezkatu du zeregin horretan, azken osoko bilkuran erabaki zuten moduan.

Udalak eta eraikinaren jabe Domingo Iturbe Fundazioak negoziatioetan dihardute. Gogoratu behar da Udalaren proiektua dela eraikin horretan, besteak beste, jolastoki estalia, erabilera askotariko gelak eta aterpetxea egitea.

GABONAK &gt; ZOZKETA

## Bost e-book zozketatuko dituzte KZgunean

Liburu elektronikoa lortzeko, Olentzerori eskutitza idatzi behar zaio

O.E. &gt; ELGETA

Gabonak aitzakia hartuta, bost liburu elektronikoko zozketatutako dituzte Elgetako KZgunean.

Zozketan parte hartzeko bi baldintza bete behar dira: bate-tik, KZgunean izena eman behar da lehenengo, aurretik emanda ez izanez gero; bigarren baldintza da Olentzerori eskutitza idatzi behar zaiola. Eskutitza, noski, *on-line* idatzi behar zaio, ez da herriko postontzira bota behar. Olentzerok eskutitzak jasotzeko helbide zehatz bat du eta KZgune-ko tutore Aitor Madrider jakinaraziko die helbidea erabiltzailerei. Bost e-book horien zozketan



Liburu elektronikoko bat.

GOIENKARIA

parte hartzeko, eskutitzak bidaltzeko epea dago: hain zuzen ere, abenduaren 22a baino lehen bidali behar zaizkio eskutitz elektronikokoak Olentzerori.

ASTELEHENEAN TUTOREA

Bestalde, astelehenean, abenduak 14, egongo da Aitor Madrider tutorea KZgunean, Internet 2.0-ko ikastaroak emateko.

KONTZERTUA &gt; GAZTETXEAN

## Bost musika taldek joko dute zapatuan herriko gaztetxean

O.E. &gt; ELGETA

Bihar, zapatua, abenduak 12, punk doinuak entzungo dira Elgetako gaztetxean. Izan ere, kontzertua antolatu dute bihar gauerako. Bost taldek joko dute emanaldi horretan: Azkoitiko Deficiencia mental eta Aidexok!, Bergarako No hay soluzion eta

Extorsion eta Tolosako Gargantas desgarradas. Punk musika egiten dute bost taldeek.

SARRERAK 3 HIRU

Emanaldia 22:00etan hasiko da gaztetxea eta kontzerturako sarrerak lehiatilan salduko dituzte hiru eurotan.

oharrak

ERRETIRATUAK

> Merienda egingo dute hilaren 18an Ozkarbi elkartearen erretiratuek

Gabonak eta urte berria datozela-eta, Elgetako erretiratuen zuzendaritzako kideek merienda antolatu dute hilaren 18rako. Urtero egiten duten moduan, aurten ere dei egiten diete herriko erretiratu guztiei meriendara joateko. Ozkarbi elkartearen egingo dute.



Jesus Gutierrez historialaria.

GOIENKARIA

Jesus Gutierrez &gt; Historialaria

## "Ezagutzen dena eta ez dena jasotzea da garrantzitsua"

O.E. &gt; ELGETA

Espainiako gerrak Elgetan izan zuen eragina ikertzeko beka atara du Udalak, Eusko Jaurlaritzaren babesarekin. Helburua da 36ko gerraren eta Elgetaren lotura egitea. Jesus Gutierrez historialariak inork baino hobeto ezagutzen du gai hori.

**Dagoeneko gerrak utzitako arrasto asko ezagutzen dira. Zer falta da ikertzea?**

Beste toki batzuetan ere eman dituzte antzerako bekak, eta horrelakoetan, egindako lanari forma emateko, ulergarri bihurtzeko aprobetxatzen dute laguntza hori, metodologia zientifiko bat emateko.

**Dena txukun jasotzeko?**

Bai. Gerraren inguruko testimoioak eta dokumentuak jasotzeko, esaterako. Ahozko bildumak ere egin dituzte, lehenengo eskutik jakiteko orduan gertatutakoa. Elgetan ere oraindik bizi dira garai hura ezagutu zutenak. Bestalde, artxibo eta

dokumentu asko daude, bai, baina gehienak Elgetatik kanpo, galdu egin direlako edo eraman egin dituztelako.

**Non daude dokumentuak?**

Hainbat tokitan: Bergarako Irargi dokumentazio zentroan, Sabino Arana fundazioak Artean duen museoan, Madrillgo eta Alcala de Henaresko artxiboetan eta Coruña, Avila eta Ferrolgo artxibo militarretan, Oñatiko protokolo artxiboan, Tolosakoan, Gipuzkoako elizbarrutikoan, besteak beste.

Ezagutzen ez dena ez da existitzen eta garrantzitsua da metodologia antolatzea, gauzak solte ez uztea.

**Jendeak eskertzen du lan hori? Badu interesik 36ko gerran gertatutakoaz?**

Senitarteko batzuei gogorra egiten zaie ordukoa gogora ekartzea, baina orain arte Intxorta 1937 kultura elkarteak egindako deialdietan ikusi da jendeak baduela interesa.

**"Dokumentu eta akta gehienak Elgetatik kanpo daude"**

**"Jendeak badu interesa jakiteko 36ko gerran gertatutakoaz"**

4 t'erdiko pilota txapelketa

Finalerdietarako txartelak jokoan

ABENDUAK 11, 20:00ETAN

1. Pello Larrea - Jesus Belamendi // Jose Mari Zubiaurre - Iñaki Ugarteburu
2. Jabier Bolinaga - Iñaki Izagirre // Julio Calleja - Mikel Arkarazo
3. Unai Alkorta - Etor Garate // Iban Retolaza - Jabier Larrañaga
4. Oier Billa - Enrike Elgoro // Haritz Gallastegi - Kepa Odriozola

ABENDUAK 13, 10:00ETAN

1. Jabier Bolinaga - Iñaki Izagirre // Asier Morales - Fernando Zenitagoia
2. Anjel Ibarluzea - Alberto Telleria // Joseba Arbulu - Mikel Elgoro
3. Koldo Goenaga - Alex Arantzabal // Luis A. Alkorta - Gorka Bolinaga
4. Sergio Bouzas - Asier Osoro // Koldo Erostarbe - Argoitz Arantzabal
5. Jose M. Zubiaurre - Iñaki Ugarteburu // Julio Calleja - Mikel Arkarazo
6. Jon Irazabal - Mikel Ormaetxea // Oxel Erostarbe - Gorka Arizmendiarieta



ARAMAIO > DANTZA

## Lagun Artea taldekoek dantza ikastaroak antolatu nahi dituzte

Abenduaren 18an, 18:30ean, bilera egingo dute eskolako gimnasioan ikastaroen berri emateko

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO  
Aramaioko Lagun Artea dantza taldekoek dantza ikastaroak antolatu nahi dituzte datorren urterako; adin guztietako pertsoneri

zuzendutako ikastaroak izango dira eta, batez ere, erromerietan ohikoak diren dantzak irakatsiko dituzte: arin-arina, fandangoa... Ikastaroen egunak eta ordu-

tegiak zehaztu barik daude oraindik. Datorren barikuan, abenduak 18, bilera egingo dute eskolako gimnasioan. Izena ematen duten pertsonen arabera antolatu dituzte txandak eta ordutegiak. Gaur egun, 40 lagun inguru dabilta Lagun Artea elkartearen bi taldetan banatuta.



Lagun Artea dantza taldeko neska gazteak dantzan.

A. INUNZIAGA

ARAMAIO > AZPIEGITURAK

## Energia berriztagarrien plana EEEEn aurkeztu du Udalak

**A.B.** > ARAMAIO  
Aramaioko Udala dirulaguntzak eskuratu nahian dabil egurra erreta Ibarra guztia berotzeko martxan ipini nahi duen azpiegitura edo sarea gauzatzeko.

Oraingo honetan, Energiaren Euskal Erakundearen aurkeztu du proiektua. Udal Gobernuak azaldu du harrera ona izan duela eta EEEk begi onez ikusi duela Aramaioko Udalak aurrera eraman

nahi duen proiektua. Dena dela, oraindik ez dute erantzunik jaso. Eusko Jaurlaritzan ere aurkeztu zuten plana eta Erein programaren bitartez dirulaguntzak jasotzeko aukera egon daitekeela azaldu dute.

Azpiegituraren proiektua landuta dauka dagoeneko Udalak; hori horrela, dirulaguntzak lortuz gero berehala hasiko lirateke Ibarra etxebizitzak berotzeko sarea eraikitzeko lanak.

LEINTZ GATZAGA > AISIALDIA

## Gaztetxoaren parte-hartzearekin ekitaldiak antolatuko dituzte

Gabonetako oporretan egingo ditu ekintzak Gurelek, baina ez dituzte egunak zehaztu

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA  
Eguaztenezan zen egitekoa batzara Gurel guraso elkarte, baina, azkenean, bertan behera geratu zen. Hala ere, hasi dira lotzen Gabon egunetako ekitaldiak.

**ESKULANAK ETA FRONTENISA**  
Ludoteka hilaren 18an itxiko dute eta ez da zerbitzurik izango opor egunetan. Hori horrela, Gurelek

antolatuko ditu Gabon egunetako ekitaldiak. Gainera, gaztetxoaren parte-hartzea gura dute guraso elkarte kideek, "parte-hartze aktiboa", eta txikienei laguntzeko zeregina jarri diete: "11-12 urte dituztenek txikiagoei lagunduko diete". Lan horren ordainetan izotz pista irteera izango dute. Egingo dituzten ekintzen artean daude marinelen korapiloak egiten ikastea eta kaxak apaintzea. Nagusiagoendako, ostera, frontenis txapelketa antolatu dute.

Ekitaldiak zehaztuta izan arren, egunak oraindik jarri barik dituzte, ahal den parte-hartze handiena bermatu gura dutelako.

LEINTZ GATZAGA  
Gaur goizean izango da dinamizatzailea KZgunean

Gaur, abenduak 11, Aitor Madrid dinamizatzailea etorriko da Pilar kaleko KZgunea (09:00-13:00). Ikastaro motzak -bi ordukoak- eskainiko dizkie herritarrei: sare sozialak ezagutu eta erabiltzeko; Youtube, Flickr eta antzekoak zertarako diren ezagutzeko; wi-fi teknologia zer den jakiteko... Abenduan ez da gehiago etorriko Madrid.

Bestalde, Gabonak datoze-la eta bost liburu elektronikoko zozketatuko ditu KZgunean sareak. Parte hartzeko, Olenzterori gutuna bidali behar diote erabiltzaileek. Horretarako, KZguneren baten ize-na emanda egon behar da.

ASTELEHENKO  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa  
**Harpidedunen txokoa**  
**Abenduko zozketa**

**SARIAK IRABAZTEKO:**  
943 08 10 50  
harpidetza@goiena.com

Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedunentzat soilik.  
Harpidetzeko erabili bide berdinak.  
Kuota: 10 euro

**EUSKARAZKO JOSTAILUAK**

Umeentzako euskarazko jostailuak



**ANTZERKIRAKO SARRERAK**

Txalo konpainiaren Ate joka antzezlanak.



**UMEENTZAKO LIBURUAK**

Pamiela etxearen umeentzako liburuak.



**SASKIBALOIARAKO SARRERAK**

Lagun Aro - Real Madrid partidurako sarrerak.



**EUSKAL SELEKZIOKO ZIRA**

Euskal Kirol Federazioen Batasunaren zira.



**SARI NAGUSIA**  
**IRAILA-ABENDUA**

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA  
ORDENAGAILU ERAMANGARRIA



**AHTEC NETBOOK LUG NO11**  
Sistema eragilea: Ubuntu Linux.  
Prozesadorea: 1.6Ghz Intel® Atom N270 Diamondville (533Mhz/512Kb).  
Memoria: 1024MB DDR2 533Mhz (1x1GB).  
Disko gogorra: 120GB 5400RPM SATA.  
Pantaila: 10" pantaila TFT WSVGA LED.  
Bermea: Hiru hilabeteko Standard3 Netbook bermea.  
Backlight, Webcam, Wireless, Bluetooth.

Laskar Informatikaren eskutik



Amillaga 32 • 943 76 59 60  
(auto garbigailu ondoan)

- Partikular eta enpresei laguntza teknikoa
- Harreman eta ikerketa pertsonalizatua.
- Informatika eta teknologia berrien produktuak.

**Etorri eta ikusi gure eskaintza eta promozio guztiak!**





laz DKS saria jaso zuten batzuk: Iñurrategi, Ezpeleta, Unda, Zufiria eta MUKO talde nagusia. ARGAZKIAK: GOIENKARIA / BAT / BRINEAN.COM

KIROL SARIAK > DKS' 09

## Abenduaren 18an kirol sarien bigarren edizioa

Oñatiko Santa Ana aretoan banatuko dituzte aurtengo Debagoieneko Kirol Sariak

XABIER URTZELAI > OÑATI

Datorren egubakoitzean, hilak 18, banatuko dituzte Oñatiko Santa Ana aretoan Debagoieneko Kirol Sariak. Bigarren edizioa aldaketa batzuekin dator, baina, oinarrian, ekimenak sorrerako helburu bera du: ibarrean kirol esparruan diharduten pertsonak eta erakundeak egiten duten lana publikoki aitortzea.

Eguaztenean aurkeztu zuten DKSen bigarren edizioa, eta Oñatiko Kirol zinegotzi Andoni Gartzia eta Kirol teknikari Oscar Carrascalek eman zituzten aurtengo ekitaldiko nobedadeak.

HAMAHIRU SARI

Aurtengo ekitaldian hamahiru sari banatuko dituzte, guztira. Iaz bezala, aurtengo ekitaldian DKS'09n esku hartuko duen udal bakoitzak bere saria eman ahal izango du. Oñati, Aretxabaleta, Elgeta, Leintz Gatzaga eta Aramaio dira udal horiek. Eta gainerako sariak dira 2009ko gizonen, emakumezko eta talde onena-

ren sariak; ibilbide, teknikari eta babesle aipagarrienei sariak; kirolari anonimoari saria; eta herritarren saria.

BAITA OÑATIKO SARIAK ERE

Gainera, aurtengo DKS'09 ekitaldiak bere hartuko ditu Oñatiko Kirol Sariak ere. Oñatin urtero egin izan dute ekitaldi hori, eta aurtun bi ekitaldi prestatu beharrean, oñatiarrek ere egubakoitzean sarituko dituzte kirolari eta kirol talde onenak.

SARIAK, EPAIMAHIAK

Udalek emango dituzten sariak alde batera utzita, iaz bezala aurtun ere DKSko epaimahaiak erabakiko du zeintzuk diren gainontzeko sarituak. Eta hor, 2009an egindako kirol lorpenak izango dituzte kontuan. Herritarren saria, berriz, Internetez eman ahal izango du edonork.

Datorren egubakoitzean 19:00etan hasiko da ekitaldia, eta Debagoieneko kirolari mordoa batuko da aretoan, baita ibarreko kirolaren alde lanean dihardutenak ere. Gainera, ekitaldian zehar izango da sorpresaren bat edo beste.

KONTUAN HARTZEKO

### Herritarren saria, Internet bidez

Aurreratu moduan, herritarren saria Internet bidez eman ahal izango du edonork. Horretarako [www.kirolsariak.com](http://www.kirolsariak.com) webgunean sartu eta bertan egin ahal izango da proposamena -ahal den neurrian proposamena arrazoitzeko eskatu dute antolatzaileek-. Eta hilaren 15era arte egin ahal izango dira proposamenak.

Iaz herritarren sarirako DKSko antolatzaileek hainbat izen proposatu zituzten, eta ondoren herritarrek boto bidez erabaki zuten nork merezi zuen saria; Arrasateko atletismo taldeko Fernando Zufiriak jaso zuen saria. Aurtun, berriz, herritarrek egingo dituzte guztiak.

> FUTBOLA

### Aretxabaletak Portugaletara bidaia egingo du eta Bergarak eta Aloñak etxean jokatuko dute

Hirugarren mailan lehenengo itzulia amaitzeko hiru jardunaldi dira, eta Aretxabaletak (24 puntu) Portugaletara (21) egingo du bidaia domekan (11:30). Hain zuzen, La Florida futbol zelaia da, Ibarrekin batera, hirugarren mailan zale gehien batzen dituen zelaietako bat. Ohorezko erregional mailan, Bergarak bigarren postuan dagoen Pasaia hartuko du bihar (15:30) eta Aloña Mendik Real Unionen bisita izango du domekan (16:30). Mondrak, azkenik, Beriora egingo du bidaia domeka goizean (11:30).

> ESKALADA

### Atzo aurkeztu zuten abenduaren 19an Arrasaten jokatuko den Euskadiko boulder txapelketa

Debagoieneko Eskalatzaileak taldeak atzo aurkeztu zuten Import Arrasateren denda berrian Santamasetako *Punk that rock* boulder txapelketa, aurtun Euskadiko txapelketa izango dena.

Hala, abenduaren 19an Euskal Herriko eskalatzaile onenak batuko dira Uarkapen. Txapelketa horretan elite mailako eskalatzaileek hartuko dute esku, baina, urtero moduan, kategoria herrikoia ez dute alde batera utziko. Iaz bezala, aurtun ere Uarkapeko hormari lotura egongo dira boulderra egiteko panelak.

> FUTBOLA

### Arizmendi ikastolak Gabonetako emakumezkoen txapelketako laugarren edizioa aurkeztu du

Laugarren urtez egingo du Arizmendi ikastolak Gabonetako emakumezkoen futbol txapelketa, eta aurtengo edizioa hilaren 26an eta 27an egingo dute. Abenduaren 26an (09:00) infantil eta kadete mailetak nesken txapelketa egingo dute, eta, besteak beste, Arizmendi A eta B, Beasain, Urki, Bergara, Aloña Mendi, Lazkao eta Casco Viejo taldeak izango dira lehian. Hilaren 27an, berriz, emakumezkoen lauko torneo jokatuko dute Realak, Eibarrek, Lagunak taldeak eta Debagoieneko selekzioak (09:30ean hasita).



Gipuzkoako selekzioko taldea, Bizkaiaren kontra.

A.E.

SASKIBALOA > EUSKADIKO GAZTE MAILAKO TXAPELKETA

## Gipuzkoako gizonen eta emakumezkoak, onenak

Eskoriatzan egindako txapelketan gipuzkoarrak izan dira onenak

X.U. > ESKORIATZA

Martitzenean amaitu zuten gazte mailako Euskadiko txapelketa, eta selekzioka gipuzkoarrak izan dira onenak. *Asteleheneko Goienkaria*-k jaso zuenez, asteburuan Gipuzkoako selekzioek abantaila hartu zuten bizkaita-


ren aurrean. Eta martitzeneko partidu erabakigarrietan, Gipuzkoa Araba baino gehiago izan zen.

Emakumezkoetan, Gipuzkoak 61-49 hartu zuen mendean Araba, baina gizonen partiduan indarrak parekatuago egon ziren, luzapenean erabaki zen-eta norgehiagoka. Ointxe! klubeko ordezkari Barreraren eta Igoaren selekzioak gogotik egin behar izan zuen lan txapelketa eskuratzeko. Luzapenean, Mikel Motosek egin zuen saskiratze erabakigarria (79-78).





> **IKUSI MAKUSI**  
Oñatiko erretiratuek antzezlan berria prestatu dute > 22



> **DURANGO**  
Gose eta Deskontrolen diskoak salduenetakoak Durangon > 23

> **XABI IGOA**  
Goizetan batxilergoa egiten dihardu Xabi Igoa aramaioarra. Ointxe! saskibaloitaldean ere badabil eta bertsozalea da > 26



Gari > Musikaria

## "Ikuslearen aurreko sentsazioak ikusteko ordua heldu da"

JOKIN BEREZIARTUA > ELGETA

Espaloian joko du zapatuan (22:30) Garik (Legazpi, 1964) *16 lore* diskoaren lehen kontzertua. Miguel Moyanorekin batera dator; esan duenez, "oso gogotsu". Sarrerak aurrez 8 euro eta leihatilan, 10.

**Bada arrazoi berezirik *16 lore* diskoaren lehen kontzertua Elgetan jotzeko?**

Ez, horrela suertatu da. Baina nire herritik gertu dago eta gustura nago Elgetan joko dugulako. Oso ondo datorkit Elgetan zein inguruko herrietan jotzea.

**Espaloia Kafe Antzokian egondakoa zara, ezta?**

Bai, ezagutzen dut aretoa. Oso ondo dago eta sinestezina da halako paraje batean halako areto dotore bat aurkitzea. Ez da bate-re arrunta, ez dakit nola lortuko zen eraikitzea. Luxua da, aprobetxatu beharreko luxua.

**Ez zatoz bakarrik. Zein izango da agertokiko zure bikote-kidea?**

Diskoan nirekin buru-belarri izan den Migel Moyano eta biok gatzoz. Eta Aitor Oñederra ere igoko da: irudiak zuzenean sarzteaz arduratuko da hura.

Hainbat makina eta tramankuluz inguratuta egongo gara, eta, muntaia txikia izango bada ere, konplexua izango da.

**Zer esan gura duzu konplexua izango dela diozunean?**

Entseguetan ikusten ari gara ordenagailu eta bestelako tramankuluekin ez dela batere erraza errepertorioa ondo bideratzea. Ez da erraza horri guztiorri forma eman eta modu dotorean aurkeztea.

Ezin da ahaztu, gainera, halako tramankuluak zuzenean erabiliko ditudan lehen aldia izango dela. Eta ez hori bakarrik: bikote moduan eskainiko dugu kontzertua. Eta orain arte ez naiz ausartu bira bat edo disko bat aurkezteko emanaldia bikote moduan eskaintzera. Baina bue-

no, probatzen ari gara eta lan handia egin dugu horretan.

**Hortaz, probak ondo doaz?**

Baietz esan behar... Hala ere, Elgetako kontzertuaren bezperan [atzo] behin betiko proba eta aurre-estrenaldia egingo dugu Mungian, entseatzeko ari garen lekuan. Izan ere, erabiliko dugun

DISKOA

### Espero barik loratu diren '16 lore'

Gariren *16 lore* diskoak bestelako proposamena da. Diskoaren sorkuntza eta ekoizpen prozesuak lagundu du lan berriaren bizitasuna areagotzen. *16 lore* oso modu naturalean sortu baita, aurrez prestatu barik. Lanaren elaborazioan parte hartu duten musikariren lanak eta emari kolektiboak diskoaren garapena eta azken emaitza markatu dituzte hasieratik: akustikoan grabaturikoa eta oinarritzko soinua naturalak erabiliz, sekulako indarra transmititzen du. Orainaldiaren ikuspegitik oroimenean sakontzen duen bilduma honetarako hamasei kantu berri dira, hainbat moldaketa eta xehetasun landuz. Azkenean, entzulearentzat harrigarria suertatzen da eta ezustean harrapatuta geratzen da. *Lore* guztiak estudioan grabatu dira, Gasteizko Artium museoan Patti Smith kantariarekin batera grabaturiko *Nire gu berriarekin* kantuaren bertsioetako bat -kantu horrek bi bertsio ditu- izan ezik.



Diskoaren azala.

ELKAR

material guztiak ondo funtzionatu duela ziurtatu behar dugu. Finean, Espaloira igo aurretiko badaezpadako proba izango da.

**Errepertorioaren aldetik, zer-bait aurreraterik bai?**

Emanaldiak bi zati izango ditu. Ez dira zati itxiak izango, baina zati bateko kantuek ordenagailuaren laguntza izango dute eta beste zatiko abestietan, berriz, ez dugu ordenagailurik sartuko.

**Emanaldiak *16 lore* diskoak izango du oinarri. Sorpresarik egongo da?**

Sorpresa bat litzateke zuzenean ordenagailua edo bestelako tramankulu bat izorratzea... [barre]. Ez, baina sorpresa handiena izango da bai Moyanok eta bai nik barruko sentimenduak ikuslearengana ondo bideratzea, bion artean. Bestela, emanaldiak indarririk gabe geratzeko arriskua izango du. Baina bueno, alde horretatik lan handia egiten ari gara eta konfiantza handia dugu elkarrekin gaudenean.

Baina hori kontzertua amaitzean esango didazu...

**Erronka berri honen aurrean gogotsu, beraz.**

Bai, bai. Oso gogotsu. Entseguetan ikusten ari gara gauzak ondo doazela eta forma polita ari dela hartzen. Orain arte gustura sentitzeko adina lan egin dugu, eta orain ikusleari aurkeztu eta sentsazioak are hobekien diren ikusteko ordua heldu da.

**Esan ditzagun bi hitz diskoaren inguruan. Oso barrutik irtendako proiektua izan da, ezta? Biluztu egin da Gari?**

Bai, hala da. Aurrez pentsatu gabeko gidoi edo bide barik irten den disko da. Bat-bateko ideia baten haritik hasi nintzen, eta, intuizioa gidari, nire errepertorioaren bertsioak egiten hasi nintzen. Bai, biluztu egin naizela esan daiteke, nire kantu horietan intentsitatea eta espresioa



Emanaldi berezia egingo du Garik zapatuan Espaloian.

ELKAR ARGITALETXEA

**"Sinestezina da halako paraje batean Espaloia moduko areto bat izatea; luxua da"**

**"Nire errepertorioaren bertsioak egiteko, ispiuaren aurrean jarri eta biluztu egin naiz"**

emateko beharrezkoa egin zaidalako nire burua ispiuaren aurrean jarri eta biluztea. Daukadana ematea, finean. Alde horretatik bai, biluztu egin da Gari.

**Azkenik, ez da oso ohikoa norberaren kantuen bertsioekin disko bat ateratzea...**

Ez da oso ohikoa, ez. Eta uste dut alde horretatik diskoak baduela ausardia puntu garrantzitsu bat.





Ikusi Makusi erretiratuen antzerki taldeko aktoreak, Santa Ana aretoko agertokian.

JABIER EROSTARBE

ANTZERKIA &gt; IKUSI MAKUSI TALDEA

## Marihuanak sortutako arazoak Oñatiko erretiratuen lan berrian

Pake Lekuko taldeak 'El jardín de la alegría' eskainiko du gaur, 20:30ean, Santa Ana aretoan

MIREIA BIKUÑA &gt; OÑATI

Oñatiko Pake Leku erretiratuen elkarteko Ikusi Makusi antzerki taldeak *El jardín de la alegría* antzezlan estreinatuko du gaur herritar guztiendako –aurretik, Pake Lekuko bazkideek bakarrik ikusi zuten–. Emanaldia 20:30ean egingo dute Santa Ana antzokian.

Axun Artzuagak idatzi eta zuzentzen duen lanean, langabe-

zian dauden bi gizonzkoen gorabeherak kontatzen dituzte. Parke baten elkartu eta, egunkariaren laguntzarekin, lana topatzeko aukerak aztertzen dihardute; bi aukera onenen artean zozketa egin, eta belar aromatikoaren denda zabaltzea erabakiko dute. Baina marihuanaren salmenta estaltzeko denda izango da. Horrek guztiorrek arazo asko sortuko dizkie protagonistei.

HAMAR AKTORE

Erretiratuendako estreinaldiaren ondoren, gogotsu daude herritarren artean euren azken lana erakusteko. Aurreko antzezlanekin egindako moduan, gogorlan egin dute guztiek. "Entsegu asko egin ditugu, eta, aurrekoetan bezala, harrera ona izatea espero dugu. Datozenek barre gustura egingo dute!", esan digute taldeko kideek.

Josefina Martin, Angel Agirre, Carmen Maiztegi, Rosi Lukas, Tere Zubia, Mari Carmen Goitia, Cruz Odriozola, Ana Mari

Chacon, Axun Artzuaga eta Ana Mari Liziaga igoko dira oholtza gainera.

AURREKO LANAK

Ikusi Makusi antzerki taldea orain dela bost urte sortu zuten erretiratuen elkartekoek. Orduetik hona bost antzezlan egin dituzte, eta guztiek herritarren harrera beroa izan dute. Ezagunenak *En dos palabras: im-paciente* eta *Zenbat urte dako amamak?* izan dira. Gainera, Debagoieneko eta Gipuzkoako hainbat herritan emanaldiak egin dituzte.

DEIALDIA

### 'Irakurketa kluba' sortu gura dute Oñatin

Hiru saio egingo dituzte umekin eta gurasoekin abendutik urtarrilera

M.B. &gt; OÑATI

Oñatiko liburutegiak *Bularretik mintzora* kanpaina abian jarri du Galtzagorri elkartearekin eta Eusko Jaur-laritzaren laguntzarekin. Helburu nagusia da 0 eta 6 urte arteko haurrengan irakurketa ohiturak sustatzea, haien gurasoekin eta hezitzaileekin.

Kanpaina horren barruan *Irakurketa kluba* sortu gura dute 3 eta 6 urte arteko neska-mutikoendako eta haien gurasoendako. Guztira, hiru saio egingo dituzte; hain zuzen ere, abenduaren 16an, urtarrilaren 13an eta otsailaren 17an. Saio horietan, gurasoek eta haurrek elkarrekin irakurriko dute. Gainera, hainbat liburu aurkeztu eta komentatuko dituzte eta adin tarte bakoitzerako gomendagarrienak zeintzuk diren azalduko dute. Hala, kalitatezko euskal bibliografia ezagutu, gurasoen eta haurren arteko irakurketa bultzatu eta gurasoak ozen irakurtzen trebatuko dira.

ITZAL TXINATARRAK

*Irakurketa klub*-ean parte hartu gura dutenek lehenbait lehen eman behar dute izena haur liburutegian, saio bakoitzeko 20 lagunendako tokia bakarrik dago-eta. Saio bakoitzaren bukaeran itzal txinatarren ikuskizuna eskainiko dute Galtzagorrikoek.

Zorionak eta Urte berri on!

*leku eta egun ahaztezinak*

120 eta 250 gonbidaturendako jangelak ditugu.

**Etxe  
Aundi**

Jatetxea-Hotela\*\*  
www.etxeaundi.com

Torre Auzo 9  
OÑATI (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 78 19 56



Goseren 'Gorria' diskoaren 600 bat ale saldu dira eta Des-kontrollek 'Aurrera begira' lanaren ia 1.000 disko saldu ditu

JOKIN BEREZIARTUA > BERGARA

Amaitu da 44. Durangoko Liburu eta Disko Azoka, eta heldu da balorazioa egiteko ordua. Gerediagi elkarteak adierazi du argitaletxe eta diskoetxeek "emaitza ekonomiko onak" lortu dituztela. Eta harritzekoa da emaitza, krisian murgilduta gauden garai honetan.

Debagoienak ordezkaritza zabala eroan zuen Durangora eta balorazioaren ostean ere aipamen berezia merezi du gure ibarrak. Diskoei dagokienez, esaterako, Arrasateko Gose eta Des-kontrol taldeen azken diskoek salmenta oparoak izan dituzte.

Des-kontrollek ia 1.000 disko saldu ditu. Gainera, zapatuan Plateruena Kafe Antzokia lepo bete zuten aurkezpen kontzertu berezian. *Aurrera begira* da diskoaren izena, eta, ikusitakoak ikusita, aurrera begira jartzeko arrazoiak badituzte.

Bestalde, Gosek azken lanaren -Gorria- 600 ale inguru saldu ditu. Ines Osinagak adierazi duenez, ez zuten horrenbeste salterik espero. Hala ere, honakoa gaineratu du taldeko abeslariak:

DURANGOKO AZOKA > BALORAZIOA

## Gose eta Des-kontrolen azken lanak, salduenetakoen artean



Domekan Goseren zuzeneko bereziaz gozatzeko aukera izan zen Ahotsenea gunean.

GOIENKARIA

"Aurtengo azokatik nabarmen-tzen duguna da Ahotsenearen eta auto-ekoizpenaren azoka izan dela. Hor dago etorkizuna. Sor-

tzaileen ikuspuntutik garrantzitsuenak ez du zenbat izan behar, zelan baizik". Zuzenekoaren aldeko apustua, beraz.

**LIBURUETAN ERE, SALMENTA ONA** Musika gain, liburuetan salmenta onak izan dituzte argitaletxe gehienek. Hala adierazi du Gerediagi elkarteak.

Debagoienetik kanpo, salduenetakoak izan diren liburuen artean daude Kirmen Uriberen *New York-Bilbao-New York*; Toti Martinez de Lezearen *Nur eta herensugearen tenplua*; Asun Garikanoren *Far Westeko Euskal Herria*; eta Anjel Lertxundiren *Eskarmentuaren paperak*.

ESANAK

"Ahotsenearen azoka izan da aurtengoa, hor dago etorkizuna"

Ines Osinaga > Gose taldekoa

"Garrantzitsuenak ez du zenbat izan behar, zelan baizik"

> OÑATIN

**Juan Carlos Irizar eta '1542 Oñati Hitzarmena' antzezlan**

Juan Carlos Irizarrek abenduaren 19an Oñatin emango duen kontzerturako sarre-rak salgai daude kultura etxean, 5 eurotan. Astelehenetik ostiralera, 16:30etik 20:30era, eta zapatuan 10:00etatik 13:00etara eskuratu ahal izango dira sarrerak. Era berean, Olaiturri taldearen *1542-Oñati Hitzarmena* antzezlaneko bi saio izango dira abenduaren 26an. Gonbidapenak kultura etxean jaso daitezke, ordutegi berean.

> MUSIKA

**Quadrophenicos eta Golpe de Estado, gaur, 3 aretoan**

Quadrophenicos eta Golpe de Estado taldeek kontzertua eskainiko dute gaur Arrasateko 3 aretoan (22:30).

Quadrophenicos taldeko hiru kideek hainbat taldetan jo dute; erritmo azkarrak, ahots urratuak eta melodiarri ukorik ez.

Bestalde, azken kontzertuan huts egin ostean -bateria-jolea gaixorik zelako-, bueltan dator 3 aretora Oñatiko Golpe de Estado.



## Zer oparitu ez dakizula?

Gure esperientziarekin, gustura lagunduko dizugu.



Kaskoa



Kilometro-kontagailua



Betaurrekoak



Eskularruak



Giltzarrapoak



Umearentzako bizikleta



Patinetea



Wind Stopper jaka



Tailerreko bonba



Gurpilak



Pultsometroa



Spinninga



Zapatilak eta botinak



Barruko kamiseta



Uretarako galtzerdiak



Erremintak



BMX bizikleta



Bizikleta estatikoa



Pernerak



Guardabarrosa

Bergaran **BICIPRECISIÓN IGARTUA** Zubieta kalean 943 76 11 21

Gabon zoriotsuak eta urte berri on, guztiei!  
Kilometro askotako urte osasuntsua izan dezazuela!





## 1/ ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Antzuola.** Sagasti auzoan etxebizitza salgai. Egongela, hiru logela, sukaldea, bi komun, terraza, trastelekua eta garajea. 626 89 15 94.

**Aramaio.** Herri erdi-erdian 91 metro koadroko etxebizitza. 32 metro koadroko ganbareekin. Bizi izateko moduan dago, baina berritu behar da. Aukera ona. Premiazkoa da. 110.000 euro. Deitu 615 73 85 77 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Erguin kalean etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, komun eta sukaldea. Deitu 606 86 71 97 telefonora.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Bolun. Egongela, hiru logela, sukaldea, bi komun, trastelekua eta garajea. Aukera ona. Deitu 688 67 10 31 telefonora.

## 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** 40 metroko apartamentu kapritxosoa ematen da errentan herri erdialdean. Apropoa pertsona bakarrentzat edo bikotearentzat. 600 euro hilean. 943 85 06 23.

**Arrasate.** Erdialdean guztiz berritutako 60 metro koadroko etxebizitza. Bi logela. Deitu 635 71 79 57 zenbakira.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Jose Luis Inárran. Hiru logela, bi komun eta trastelekua. Deitu 653 71 22 42 telefonora eta Txarorengatik galdetu.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Uriburu kalean. Egoera onean. Merke. Gauetan deitu. Deitu 667 03 10 42 edo 943 79 25 16 zenbakietara.

**Bergara.** Bi logela eta bi komuneko etxebizitza ematen da errentan. Ibargarai 15ean. Deitu 659 44 58 06 telefonora.

**Elgeta.** Etxebizitza ematen da errentan Salbador kalean. Bi logela, egongela, sukaldea eta komun. Deitu 650 23 10 19 telefonora.

**Eskoriatza.** Etxebizitza ematen da errentan erdialdean. Etxebizitza berria. Hiru logela, bi komun, egongela eta sukaldea. Deitu 620 50 08 49 edo 652 70 08 00 telefono zenbakietara.

## 104. ERRENTAN HARTU

**Aramaio.** Bikote langile eta arduratsua etxebizitza alokatu luke Ibarra edo Aramaion. 699 40 73 35 edo 669 15 36 58.

**Bergara.** Etxea errentan hartuko nuke. 691 03 25 02.

## 105. ETXEA OSATU

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Musakolan. Deitu 610 82 02 17 telefonora.

**Arrasate.** Pertsona bat behar dugu lau gelako etxebizitza osatzeko. Langileak bizi dira bertan. Deitu 605 77 51 66 edo 943 79 46 13 zenbakietara.

**Bergara.** Logela bat behar da urtariletik letik eta bost hilabetez, australiar mutil gazte batentzat. 943 76 31 42.

## 4/ LANA

## 402. ESKAERAK

**Arebabaleta, Arrasate edo Eskoriatza.** Lan egingo nuke garbiketa lanetan: elkarreak, tabernak, bulegoak eta abar. Asteazken zehar zein asteburuetan. Erreferentzia onak. 648 19 10 38.

**Arebabaleta, Arrasate edo Eskoriatza.** Neska gertu asteburuetan tabernan lan egiteko. Sukaldean, barran zein jangelan. Ordu-tegi malgua. Legezko paperak daukat. 620 54 60 59.

**Arrasate.** Emakume gertu ume edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. 619 78 63 41.

**Arrasate.** Emakume gertu umeak zaintzeko. Urte askotako esperientzia. 662 70 31 68.

**Arrasate.** Emakume gertu zerbitzari lanetarako. Esperientziaduna. 679 04 42 68.

**Arrasate.** Neska euskalduna arratsalde nagusiak zaintzeko gertu. Kotxe propioa. 696 37 92 29.

**Bergara edo Arrasate.** Nagusiak zainduko nituzke, egunez. 943 53 28 18 edo 696 84 19 51.

**Bergara eta Arrasate.** Pertsona nagusiak zaindu edo garbitasun lanak egiteko nituzke. 691 03 25 02.

**Bergara.** Aste bukaeretan garbitasun lanak egingo nituzke taberna batean. Paperak ditut. 616 20 49 83.

## IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarki iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com edo <http://www.goiena.net/sailkatuak>

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINUTAKO ATALAK:  
ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU/ALOKATU.  
Iragarki partikularretan astebete baino gehiagor argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira. GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## AUKERA

Etxebizitza adosatutako salgai Elgetan.

Lehen mailako materialekin.

Eraikuntza bukatua.

PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita

Korosti Inmobiliaria  
Ibargarai 3 - Bergara Tel.: 943 76 97 97  
[www.inmikorosti.com](http://www.inmikorosti.com)

**Bergara.** Paperak dituen emakume gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko. 696 19 05 15.

**Debagoiena.** Emakume esperientziadunak etxean bertan bizi izaten lan egingo luke. Legezko paperak ditut. 689 50 61 24.

**Debagoiena.** Emakume gaztea gertu nagusi zein umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko: etxeak, atariak, tabernak edo bestelakoak. Sukaldean ere arituko nintzateke. 676 28 87 84.

**Debagoiena.** Emakumea edo zein lanetarako gertu. Ana Luisa de los Santos. 671 27 78 36.

**Debagoiena.** Emakume gertu pertsona edadetu zein haurren zainketa lanak egiteko. Etxean bizi izateko prest. 663 65 78 43.

**Debagoiena.** Emakume gertu zerbitzari lanetarako. Garbiketa egiteko ere gertu. Esperientziaduna. 679 04 42 68.

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu sukalde laguntzaile edo zerbitzari lanetarako. 610 82 02 17.

**Debagoiena.** Ile-apaintzaile lanetan jardungo nuke. 639 00 35 57.

**Debagoiena.** Lau urteko esperientziadun neska nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bizi izaten ere bai. 626 78 22 95.

**Debagoiena.** Mutila gertu eraikuntzan, lantegietan edo dentetan lan egiteko. 689 92 82 67.

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu pertsona nagusiak zaintzeko aste bukaeretan, jaiegunetan edo arratsaldeetan. Klinikako laguntzaile titulua daukat. 943 74 82 09.

**Debagoiena.** Neska ukrainarra etxeko lanak egiteko gertu. Etxean bertan bizi izateko edo orduka lan egiteko gertu. 690 13 13 99.

## 6/ MOTORRA

## 601. SALDU

**Honda Varadero XL 1000v** motorra salgai. 2006koa. Egoera oso onean. 23.000 km. Estraskorekin: hiru maleta, esku-berogailua eta Givi defentsak. Betei garajea. Deitu 605 71 24 73 telefonora

**Yamaha FZ6 Facer S** motorra salgai. 600 cc. 98 ZP. 2007koa. 32.000 km. Givi maleta ekipoa. Estrak. 4.500 euro. 679 81 87 87.

**Debagoiena.** Pertsona esperientziaduna etxeko lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko gertu. Deitu 943 53 27 11 edo 650 17 74 87 telefono zenbakietara eta Maierengatik galdetu.

**Oñati.** Neska portugaldarra (gaztelania dakit), oso arduratsua, zaharrak nahiz umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edota edozein motatako garbiketa lanak egiteko prest. Esperientziaduna. Deitu 697 50 41 90 telefono zenbakira.

## 5/ IRAKASKUNTZA

## 502. EMAN

**Arrasate.** Goi Ingeniaritzako ikasle arduratsua eskola partikularrik emateko prest. Deitu 625 74 91 50 telefono zenbakira.

**Arrasate** Eskola partikularrik ematen ditut Musakola eta Santa Marina inguruan. Deitu 696 37 92 29 zenbakira.

**Bergara.** Ingelesko eskolak ematen ditut. Maila guztiak. Azterketak gertatzeko ere bai. Deitu 618 91 32 89 telefono zenbakira.

**Ingeleszko elkarrizketak.** Bergaran ingeleszko elkarrizketak eskaintzen ditut 'one to one'. Deitu 654 94 87 26 telefonora.



INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA  
Tel. / Faxa: 943 76 97 97  
[www.inmikorosti.com](http://www.inmikorosti.com)

## ETXEBIZITZAK SALGAI

## Bergara:

- Matxiategi 82 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua.
- Zubiaurre 230 m<sup>2</sup>. Berritua.
- Aranerrea 85 m<sup>2</sup>. Berritua.
- Elusu baseria. Berritua. Oso ondo.
- Alkabieta 88 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua.
- Zubiaurre 67 m<sup>2</sup>. Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Barrenkale 82 m<sup>2</sup>. Berritua.
- San Antonio, 46 m<sup>2</sup>. Berritua.
- Masterreka. 46 m<sup>2</sup>. Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m<sup>2</sup>. Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m<sup>2</sup>. Prezio ona.
- San Pedro 65 m<sup>2</sup>. Ganbareekin.
- Osintxu 64 m<sup>2</sup>. Berritua. 114.192 €.
- Aranerrea 80 m<sup>2</sup>. Terrazarekin.
- Zubiaurre 58 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua.
- Aranerrea 90 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Osintxu 62 m<sup>2</sup>. Prezio ona.
- San Lorenzo 68 m<sup>2</sup>. Berritua.
- Zubiaurre 52 m<sup>2</sup>. Berritua.
- Etxebizitza berrien eraikuntza Martokan, 196.200€.
- Artelale. Logela bat. Berritua.

## Antzuola:

- Buzinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m<sup>2</sup>. Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135.000 €.

## Elgeta:

- San Roke 72 m<sup>2</sup>. Berritua.
- San Roke 80 m<sup>2</sup>. 80 m<sup>2</sup>-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m<sup>2</sup>. Berritua.

## Soraluze:

- Atxuri 49 m<sup>2</sup>. 117.618 €.



DEBA  
GARAIA  
INMOBILIARIA

Telesforo Aranzadi 2  
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

## ETXEBIZITZAK SALGAI

## BERGARA

- Arrizuri, 97 m<sup>2</sup>, garajearekin.
- Aranerrea, 80 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- Matxiategi, 88 m<sup>2</sup>, eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m<sup>2</sup>, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m<sup>2</sup>, oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m<sup>2</sup>, ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m<sup>2</sup>, berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 m<sup>2</sup>, berria, garajea eta trastelekua.
- Martoko, 87 m<sup>2</sup>, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m<sup>2</sup>, ondo.
- Ibargarai, 80 m<sup>2</sup> oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m<sup>2</sup> oso ondo.
- Urdangarin pasealekua, 132 m<sup>2</sup>, berritzeko.
- Zabalotegi 80 m<sup>2</sup>, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m<sup>2</sup>, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 m<sup>2</sup>, berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m<sup>2</sup>, terrazarekin.
- Zuradero, 81 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- Zubieta, 125 m<sup>2</sup>, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m<sup>2</sup>, berritua. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- San Antonio, 65 m<sup>2</sup>, eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m<sup>2</sup>, eraikuntza berria.
- Etxebizitza berrien eraikuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokan eta San Lorentzen.
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.

## SORALUZE

- Baltegieta, 83 m<sup>2</sup>, berria.
- Sagarrerrea, 58 m<sup>2</sup>, aukera ona.

## ANTZUOLA

- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

## ELGETA

- San Roke, 75 m<sup>2</sup>, ia berria.

## DEBA

- Txalet bateko etxebizitza, hondartzako lehenengo ilaran

**Liburuak salgai.** Liburu sortak salgai, denetariokoak. Oso-oso merke. 665 73 59 83.

**Snow-taula salgai.** Fijazio eta guzti, 85 eurotan; eta taula bakarrik, 50 euro. Egoera onean. 671 92 06 49.

## 802. EROSI

**Akordeoi-pianoa** erosiko nuke. 120 baxukoa. 699 10 74 45.

## 804. HARTU

**Bi sofa** hartuko nituzke. Botatzeko badituzu, deitu. Deitu 679 09 33 34 telefonora.

## 806. GALDU

**Bandolera** beltza galdu nuen Arrasateko Iturripe frontoi inguruan. McMinley etxekoa. Barruan dokumentazioa eta argazki zahar batzuk daude. Balio sentimental handikoak dira. Aurkitu badituzu, mesedez, eraman itzazu BAZera. Eskerrik asko.

**Betaurrekoak.** Umearen betaurreko graduatu urdinak galdu genituen zapatuan, azaroaren 28an, Arrasaten, Iturritz eta San Andres artean. Deitu 665 72 23 06 telefono zenbakira.

**Nintendo Dsa** galdu dut, Oñatin. Urdin argia da. Aurkitu baduzu, mesedez, deitu: 943 71 65 35 edo 635 55 67 23.

**Paparreko orratza** galdu nuen Bergaran azaroaren 21ean; Espolotik zaharren egoitzara bitartean. 676 36 64 12.

## 807. AURKITU

**Eskumuturrekoa** aurkitu nuen azaroaren 24an Aretxabaletan, Azboko aparkalekuan. Zilar kolorekoa. Zurea baldin bada, deitu. 615 79 20 66.

**Kaskoa** aurkitu nuen Oñatiko plazan, azaroaren 15ean, domekan, iturri ondoan. Bizikletan ibiltzekoa. 658 75 64 65

## 808. BESTELAKOAK

**Bergararik Gasteizera joan-etorria** egiten dut egunero, autobidetik. Bergararik 09:00etan irten eta buelta Gasteiztik 17:00etan egiten dut. Norbaitek autoa osatzea nahi badu, dei diezadala. 606 96 23 80 edo 943 76 32 23.

## 904. BESTELAKOAK

**Bergararik Gasteizera joan-etorria** egiten dut egunero, autopistatik. Bergararik 9:00etan irten eta buelta Gasteiztik 17:00etan egiten dut. Norbaitek kotxea osatzea nahi baldin badu dei dezake inolako konpromiso gabe 606 96 23 80 edo 943 76 32 23 zenbakietara.

**Oñati-Gasteiz.** Egunero joaten gara. 08:00etan hiltzen gara eta irten 17:00etan. Deitu inolako konpromiso gabe 635 20 33 14 telefono zenbakira.

ABENDUAK 12

MODISTILLEN EGUNA

aretoa  
bergara

JAM TOMAS BOYS

BILUZTE SAIO OSOA

TOMAS BOYS-EN BELAUNALDI BERRIA, BILUZTE SAIO OSOAREKIN  
EUROPAKO IKUSKIZUN HOBERENA. 0:00 ETATIK 2:00 ETARRA  
SARRERA 10 EURO BERGARAKO EMAKUMEZKO HERRITARRAK DOHAIN  
(NAN AURKEZTUZ)

SANTA ALAITZ, 5 - SAN LORENZO POL. - BERGARA JAM ARETOA





XACOBEO 2010  
Galicia

Eskaintza, 2009ko azaroaren  
26tik abenduaren 16ra arte



**EROSKI**

40 zurekin  
urte

www.eroski.es  
Entzuten zaitugu: 902 540 340

Irudia eta soinua • Entretenimendua • Etxetresna elektrikoak

# TEKNOLOGIA



**LG** TV LCD 32" FULL HD  
bereizmen handiko sintonizatzailea  
✓ Kontraste dinamikoa: 50.000:1  
✓ Smart Energy Saving  
✓ Idulki birakaria

**39,92 €** hilean  
TIN: 0%  
UTB: %2,03  
Komisioa: %1 (4,79€)\*  
Finantzatutako prezioa: 483,79€

12 HILABETETAN INTERESIK GABE®  
EROSKI TXARTELAREKIN ORDAINDUTA

**479 €** bermearen luzapena 4 urtetara 49€-gatik

ORDAINDU

**12**  
HILABETETAN  
INTERESIK  
GABE  
UTB: 2,03%  
%1 komisioa

**ZURE EROSKETAK ELEKTRONIKAKO,  
ELEKTRO-ETXEKO ETA AISIALDIKO PRODUKTUETAN**

\* Santander Consumer Finance S.A.k eskaintzen du finantzaketa eta EROSKI red Visa txartelaren bidez onartu behar da. Finantzaketa 12 hilabetetan. Urteko interes-tasa nominala %0. 299 €tik gorako erosketetan. Ordainketa atzeratzearen komisioa (%1) lehenengo kuotan ordaintzen da. Ordainketak hilaren 5ean likidatzen dira. UTBa kontratazio egunaren arabera alda daiteke. 2010ko urtarrilaren 6ra arte indarrean izango da. RBE: 2861/09. EROSKI-k finantzatzen ditu interesak.





Xabi Igoa &gt; Bertsozalea eta saskibaloia jokalaria

# "Ez dakit nondik ateratzen dudan denbora egiten dudan guztia egiteko"

Gazte lanpetua da Xabi Igoa aramaiarra. Goizetan batxilergoa egiten dihardu Arrasateko Ins-

titutuan. Arratsaldeetan, Ointxe! saskibaloia taldearekin entrenamenduak izaten ditu. Gainera,

bertsozalea da eta Aramaioko bertso eskolan dihardu. Hori guztia gutxi balitz, noizean behin

GOIENKARIAko *Koplak* atalean idazten du. Harrigarria bada ere, guztia egiteko denbora du.

NAROA ODRIUZOLA > ARAMAIO

Asko gara, lanez leporaino egonda, egunak ordu gehiago izan behar ko lituzkeela esaten dugunok. Xabier Igoarentzat, aldiz, eginbeharrak betetzeko nahikoa dira eguneko 24 orduak. Guretzat ere tartetxo izan du Igoak.

**Batxilergo ikaslea, bertsolaria, idazlea eta saskibaloia jokalaria. Zerbait ahaztu zaigu? Elkarraren artean ez dute zerikusirik...**

Uste dut ez zaizuela ezer ahaztu [barre algarra]. Bata bestearekin zerikusirik ez izateak batzuetan arazoak ekartzen ditu. Denbora falta, adibidez. Hala ere, gustura nago.

**Arrasateko Institutuan batxilergoa egiten zabilta. Zein batxilergo mota da?**

Batxilergo Zientifikoa egiten ari naiz. Dagoeneko bigarren mailan nago.

**Zergatik erabaki zenuen ikasketak horiek egitea? Etorkizunean zer ikasi nahiko zenuke?**

Hasieran, Fisika eta Ekonomia aukeratu nituen eta gero Mekanika. Baina ez zidaten Mekanika egiten utzi eta Kimika hartu behar izan nuen. Horregatik nago Batxilergo Zientifikoa egiten. Oraindik ez daukat argi zer ikasiko dudan etorkizunean, baina seguruenik Ingeniaritza egingo dut.

**Saskibaloian Ointxe! klubean ari zara. Noiztik? Euskal Ligan jokatzeko plaza lortu duzue.**


Orain dela sei urte hasi nintzen saskibaloian jokatzeko. Aurten finalurrekoa falta zaigu jokatzeko, eta, finalurrekoa irabaziz gero, eta espero dut baietz, Euskal Ligan jokatuko dugu. Abenduaren 19an Arrasaten dugu lehen partidua eta 20an Donostiara goaz jokatzera.

**Gainera, abenduko saskibaloia txapelketa irabazi duzue.**

Bai; domekan izan genuen lehenengo partidua Bizkaiaren kontra, eta emaitza ona lortu genuen. Eta martitzenean Arabaren aurka jokatu genuen.

**Zenbat urterekin hasi zinen saskibaloian jokatzeko? Zergatik saskibaloia eta ez beste kirolen bat?**

Eskolan betidanik jokatu dut saskibaloian. Gainera, aita saskibaloia jokalaria zen eta hark bultzatu ninduen. 12 urterekin hasi nintzen Ointxe! talde arra-



NAROA ODRIUZOLA

## PERTSONALA

**Herria:** Aramaio. **Adina:** 17 urte. **Ikasketak:** Batxilergo Zientifikoa egiten ari naiz Arrasateko Institutuan. **Zaletasunak:** Saskibaloia eta bertsolaritza. **Saskibaloia jokalaria bat:** Pablo Prigioni. **Liburu gomendagarri bat:** Andoni Egañaren *Hogeita bina*.

**Gustuko film bat:** *Star wars*. **Bizi izateko leku bat:** Aramaio. **Amets bat:** Adierazteko aske izatea. **Bizitzako leloa:** Ez dago ezer tristeagorik triste izatea baino, horregatik egiten dut barre malkoak irteteraino. **Bertsolari bat:** Andoni Egaña.

satearrean. Aramaion gure aitaren garaian saskibaloia taldea ez dago talderik.

Hasieran futbolekin eta pilotarekin jokatu nintzen. Futbola bi partidua jokatu orduko laga nuen. Pilota, ordea, 12 urterekin utzi nuen, herrian bakarrik gelditu nintzelako. Taldeko kirolak eta aitak bultzatuta saskibaloia aukeratu nuen.

**Horrenbeste eginbeharrekin, entrenatzeko denborarik badaukazu?**

Gutxi. Gainera, masajistak gutxiago entrenatzea gomendatu dit. Astean lau egunetara entrenatzen naiz, arratsalde edo gau aldean.

**Bertsozalea ere bazara.**

Bai, bertsozalea edo bertsolaria. Behin, nire irakasle izandako Manex Agirre klasera etorri zen eta bertso eskola batzuk eman zizkigun. Hurrengo urtean, Aramaioko bertso eskolan apuntatu nintzen eta orduetik hona 7 urte daramatzat bertan.

**Besteak beste, eskolarteko txapelketan eta Arabako txapelketan parte hartu duzu. Zerenolako esperientziak izan dira?**

Politak. Eskolartekoan urte batzuk daramatzat jada, eta gustura nago egiten dudarekin. Arabako txapelketan behin kantatu dut, iaz. Finalurrekoran pasatu nintzen eta Aramaion izan zen. Oso urduri nengoen. Herriko jende asko zegoen eta hura ikusita hunkitu egin nintzen. Egindako lanak zerbaiterako balio du eta gustura nabil kantuan. Harrikadaren bat botaz gero, barre egin eta listo.

**Hori guztia gutxi balitz, GOIENKARIAko *Koplak* atalean idazten duzu noizbehin. Idazle ezkutua daramazu barnean?**

Ez dut uste. Lehenago Marisa Agirrek idazten zuen, baina utzi egin behar zuen eta norbait behar zuten, niri proposatu eta baiezkoa eman nien. Hilabetean behin idazten dut koplaren bat. Gaia egunkarietatik ateratzen dut.

**Horrenbeste gauza eginda, nondik ateratzen duzu denbora guztia egiteko?**

Hori galdetzen diot nire buruari askotan. Hala ere, zerbait utziko banu, aspertu egingo nintzateke.





Pasai Donibaneko erromes etxea.

GOIENKARIA

# 'Gipuzkoa kultura' eguenetan izango da aurrerantzean

Pasai Donibaneko erromes etxe berria nolakoa den erakutsiko dute

**OIHANA ELORTZA > ARRASATE**  
Artelekun egin dituzten ilustrazio topaketak, Abbadia saria eta Pasai Donibanen erromesendako zabaldu berri duten aterpetxearen inaugurazioa. Horiek emango dituzte datorren asteo *Gipuzkoa kultura* saioan. Eguenean, abenduak 16, izango da saioa. Izan ere, hemendik aurrera eguenetan emitituko dute *Gipuzkoa kultura*. Egueneko programan

hiru gai jorratuko dituzte eta horietako bat da Pasai Donibanen zabaldu berri duten erromes etxea. Santa Anako baselizan egokitu dute aterpetxe hori eta kostaldeko Donejakue bidea Pasaiatik egiten dutenen erromesei begira zabaldu dute.

Aipatutako erromes etxean 14-16 lagunendako tokia dago; bi komun ditu eta erromesei zuzendutako sukaldea baita.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Goiena Telebistak elkarlanean ekoizturiko saioa da *Gipuzkoa kultura*. Euskarazko toki telebistetan emititzen da joan den irailetik. Hain zuzen ere, Gipuzkoa 2.0 egitasmoak bere baitan

hartzen duen ekintzetako bat da saioa. Esan bezala, eguenetan, 22:15ean, emitituko da aurrerantzean. Interneten *Tokiko.tv* eta *Gipuzkoakultura.net* atarietan ikusi ahal izango da saioa.

Oihane Agirre GOITBko programazio zuzendariaren arabera saio dinamikoa da, astero kulturako diziplina ezberdinak erakutsiko dituena: "Aukera bat da Goienarendako, sinistuta baitaude saio honekin kultura etxekotu egingo dugula. Gipuzkoan dagoen mugimendu kulturaren berri eman nahi dugu".

**GOITB, 'Gipuzkoa kultura'**

> Eguena, 22:15

## Argiñanoren liburuaren zozketa

**O.E. > ARRASATE**  
Karlos Argiñano sukaldari ezagunak idatzi duen *Cocina vasca* liburu mardula zozketatuko dute datorren astean Arrasate Irratiko *Igo autobusera* irratsaioko entzuleen artean. Baint etxeak argitaratu du liburua eta koloretako argazkiz ilustratuta dago. Zozketan parte hartzeko: deitu telefonoz 943 25 05 05 zenbakira edo idatzi mezua *irratia@goiena.com* helbidera. Zozketaren irabazlea egubakoitzean jakinaraziko dute.

**Arrasate Irratia, 'Igo autobusera'**

> Aste barruan, 10:00



GOIENKARIA

## Bertsolari txapelketako finalaren laburpena

Euskal Herriko bertsolari txapelketaren finalaren laburpena emango du Goiena Telebistak datorren egunean, abenduak 17. Ordubeteko programa berezia izango da eta domekan BECen finala jokatu duten zortzi bertsolarien lan onenak jasoko ditu.

**GOITB, 'Puntuz puntu'** > Eguena, 22:45

## Eskoriatzako alkatea GOITBn

**GOIENKARIA > ARRASATE**  
Hurrengo egunean, abenduaren 17an, Pedro Lagabaster Eskoriatzako alkatea gonbidatuko dute *Goiena magazinea* saiora. Hain zuzen ere, *Alkateak zuzenean* atalean elkarrizketatuko dute Lasgabaster. Dagoeneko Debagoieneko alkate guztiak igaro dira saiotik eta Eskoriatzako alkateak emango dio amaiera *Alkateak zuzenean* atalari. Aste barruan, egunean emititzen da *Goiena magazinea*.

**GOITB, 'Magazinea'**

> Astelehenerdik egubakoitzera, 19:45

## arrasate irratia

FM 107.7

### Zapateria

10:00 Asteko gainbegiratu.

### Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.

### Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Uda Giroan  
Albistegia  
Eguraldiaren iragarpena (Ioxe Landa)  
Astelehenetan Kiroiak  
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)  
Sozioekonomia gaiak, Iñaki Azkoaga komunikazio arduradunarekin  
Udal Gazte Bulegoa  
Sexologia Zerbitzua  
Azkeneko Geltokia: hileta oharrak; zorion agurrak; eguneko oharrak...  
Astearren errepasoa (Goienkariarekin)  
Eguneko eta asteo protagonistekin, elkarrizketak  
Zozketak (egubakoitzean)  
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com*))  
12:05 Euskadi Irratiko albistegia  
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
14:00 Uda Giroan  
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

## astea GOITBn

Egubakoitza, 11	Zapateria, 12	Domeka, 13	Astelehena, 14	Martitzena, 15	Eguaztena, 16	Eguena, 17
13:15 Marrazki bizidunak	08:00 Marrazki bizidunak.	08:00 Barrebusa.	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.
13:45 Kantari.	bizidunak.	09:00 Marrazki bizidunak.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.
14:15 On ein.	10:30 Barrebusa.	bizidunak.	14:15 Eltze beroa.	14:15 On Ein.	14:15 Udazken loreak.	14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.	11:30 Kantari.	11:30 28 klip.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.
15:15 Ur eta Lur.	14:00 On Ein.	12:00 Itsasoari begira.	15:15 Sakonduz.	15:10 Harmailatik.	15:10 Ilunpean.	15:15 Erreportajea.
15:45 Itsasoari begira.	14:30 Udazken loreak.	12:30 Wazemank.	15:45 Ikusmira.	15:50 Ikusten.	15:50 Sakonduz.	16:15 Ikusmira.
16:15 Ikusten.	15:00 Barrebusa.	13:00 Erreportajea.	16:15 28 Klip.	16:20 Itsasoari begira.	16:20 28 Klip.	16:45 Berriak.
16:45 Berriak.	16:00 Marrazki bizidunak.	13:45 Ur eta Lur.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	17:15 Marrazki bizidunak.
17:15 Marrazki bizidunak.	18:30 Gipuzkoa Kultura.	14:15 Puntuz Puntu.	17:15 Marrazki bizidunak.	17:10 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak.	18:00 Sakonduz.
18:00 Ilunpean.	19:00 Kale kanto.	14:45 Kale kanto.	17:45 Kalekanto.	17:35 Wazemank.	17:35 Harmailatik.	18:45 Berriak.
18:45 Berriak.	19:30 Itsasoari begira.	15:15 Gipuzkoa Kultura.	18:15 Ilunpean.	18:15 Gipuzkoakultura.	18:15 Ur eta lur.	19:15 Marrazki bizidunak.
19:15 Marrazki bizidunak.	20:30 28 Klip.	15:45 Marrazki bizidunak.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.	19:45 Goiena Magazinea.
19:45 Goiena Magazinea.	21:00 Ilunpean.	18:15 Barrebusa.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Marrazki bizidunak.	20:45 Kantari.
20:45 Kantari.	21:45 On ein.	19:15 Kantari.	19:45 Goiena Magazinea.	19:45 Goiena Magazinea.	19:45 Goiena Magazinea.	21:15 Goiena Magazinea.
21:15 Goiena Magazinea.	22:15 Ikusten.	21:15 Wazemank.	20:45 Kantari.	20:45 Kantari.	20:45 Kantari.	22:15 Gipuzkoakultura.
22:15 Sakonduz.	22:45 Ikusmira.	22:00 Erreportajea.	21:15 Goiena Magazinea.	21:15 Goiena Magazinea.	21:15 Goiena Magazinea.	22:45 Puntuz puntu.
22:45 Udazken loreak.	23:15 Wazemank.	22:45 Gipuzkoakultura.	22:15 Harmailatik.	22:15 Ilunpean.	22:15 Erreportajea.	23:20 Itsasoari begira
23:15 Kale kanto.	00:30 28 klip.	23:15 Ilunpean.	23:00 Gipuzkoakultura.	23:00 Wazemank.	23:00 Wazemank.	23:45 Goiena Magazinea.
23:45 Magazinea.	01:00 Emisio amaiera.	00:00 Itsasora begira.	23:30 Goiena Magazinea.	23:30 Goiena Magazinea.	23:45 Goiena Magazinea.	23:45 Goiena Magazinea.
00:45 Emisio amaiera.	01:00 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	00:45 Emisio amaiera.	00:45 Emisio amaiera.



## Aurreikuspen Pentsio Planak

Zure irribarrea, zure etorkizuna  
eta zure errentagarritasuna  
bermatuak

Euskadiko Kutxaren Aurreikuspen Plan  
Bermatu\* berriarekin, zure etorkizuna eta  
zure inbertsioa ziurtatuta daude.

zure ekarpenaren

**% 100**



**% 10**<sub>eko</sub>

balio handitzea  
14/10/31n

UTB: **%2,03**

Harpidetza egiteko epea: **2010eko urtarrilaren 31ra arte**

Berme-epea: **2010eko urtarrilaren 31tik 2014ko urriaren 31ra.**

Zuretzat bereziki,  
**Gordailu  
Konbinatua**

Plan bermatua IVn egiten  
dituzun ekarpenen bidez  
**Gordailu Konbinatua** lortu  
ahal izango duzu oso  
baldintza berezietan.

Mugi zaitez,  
zure ekarpenek  
oparia dute





URTEURRENA

## Mertxe Leibar Guridi

Lehen urteurreneko meza domekan, abenduaren 15an, 12:50ean, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiari ospatuko da.

*Nahiz eta gure artetik urrutira joan beti izango zaitugu gure bihotzean.*



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Jacinto Suinaga Larrañaga

Lehen urteurreneko meza domekan, abenduaren 15an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Alazne Gartzia Errasti

2005eko abenduaren 15ean hil zen.

*Zure begiek  
ene maitea  
badute biek  
dirdir ezia.*

*Zeruko lore,  
miresgarriak  
izarren pare,  
zoragarriak.*

*Asko maite zaitugu.*



Aitatxo, amatxo, Garazi eta Julen. Arrasaten, 2009ko abenduaren 11n.

URTEURRENA

## Joaquin Ceciaga Arenaza

2008ko abenduaren 15ean hil zen.

Lehen urteurreneko meza domekan, abenduaren 15an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Angel Azkarate Arizabaleta

Lehen urteurreneko meza domekan, abenduaren 15an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Maite Aranburu Telleria

Bergaran hil zen 2008ko abenduaren 21ean.

Lehen urteurreneko meza domekan, abenduaren 15an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Belen Fernandez Maure

Lehen urteurreneko meza domekan, abenduaren 15an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari ospatuko da.

*Laster arte ezpainetan  
utzi gaituzu penetan  
orain gure ametsetan*

*bizirik zaude benetan  
zeruko izarretan  
eta gure bihotzetan.*



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Belen Fernandez Maure

*Ez nau izutzen negu hurbilak  
Uda betezko beroan  
Dakidalako irauten duela  
Orainak ere geroan.*



Zure kuadrila.  
Bergaran, 2009ko abenduaren 11n.

URTEURRENA

## Guadalupe Kortabarria Kortabarria

Oñatin hil zen 2008ko abenduaren 7an.

Lehen urteurreneko meza zapatuan, abenduaren 12an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiari ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

### bono fotoa



**Mendeetan zehar oñatiarren bizitza zaindu du dorre honek. Kondaira eta istori ugari gordetzen ditu bere horma zaharren artean. Nola du izena?**

Argazkia eta galdera > Jose Fernandez

#### AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

Bergarako **Begoña Urkizu**.  
Zorionak!  
Erantzun zuzena: **Elgetan**



**ETXEZ ETXEKO BANAKETA**  
Larchago ardoak  
eta produktu ekologikoak  
943 76 98 51

Garmendia Ardoek emandako

#### Ardo botila packa\*

zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

\* Larchago iskillarapeko ekologikoa botila bat. Larchago beltz berezia botila bat. Larchago krianza botila bat.

ERANTZUNA .....  
IZEN-DEITURAK .....  
HERRIA ..... TELEFONOA .....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

ESKER ONA

## Serafin Atxa Ugarteburu

2008ko abenduaren 10ean hil zen, 88 urte zituela.

Urteurreneko elizkizunetara etorritakoei eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2009ko abenduaren 11n.

ESKER ONA

## Jose Luis Manuel Herreros

Donostian hil zen 2009ko azaroaren 17an, 58 urte zituela.

Hileta-elizkizunera joandakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Haren arimaren aldeko meza zapatuan, abenduaren 12an, 19:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari ospatuko da.



Bergaran, 2009ko abenduaren 11n.



# Abenduak 11-18

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.  
Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com)  
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

## Musika



### OÑATI

#### > Loli Oteiza eta Aloña abesbatza bihar eta Gabonetako kontzertua domekan

Emanaldiko bi abestitan Pake Lekuko Aloña abesbatzaren laguntza izango du Loli Oteizak bihar San Migel parrokian, 20:00etan. Domekan, berriz, Oñatiko musika taldeek Gabonetako kontzertua eskainiko dute parrokian, 19:00etan.

## Antzerkia



### ARRASATE

#### > 'Alegiazko liburua' zapatuan, La Baidufa Teatre talde katalanaren eskutik

Bereziki 6 urtetik gorako haurrei zuzendutako ikuskizuna da *Alegiazko liburua*. Itzalak, proiektzioak, txotxongilo artikulatuak... Abentura eta utopiaren aldarria egiten duen istorio bat. Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 17:00etan.

## Musika



### BERGARA

#### > Bergarako Orfeoien kontzertua zapatuan Mariaren Lagundian

Aitor Biainek zuzenduta, *A Christmas round*, *Izartxo bat*, *Birjina maite* eta *The twelve days of Christmas* eskainiko dituzte, besteak beste. Hainbat bakarlarik hartuko dute parte. Bihar, zapatua, Mariaren Lagundian, 20:00etan.

### ARRASATE

#### > 'Emakume kubatarrak: Iraultza bat beste baten barruan'

Euskadi-Kuba elkarrearen eskutik. Emakume Txokoan, abenduaren 15era arte. Astelehenerdik eguenera (16:00-20:00) eta egubakoitzetan ere bai (10:00-14:00).

### ARETXABALETA

#### > Bainika erakusketa Arkupe kultura etxean

Bainika ikastaroan parte hartu duten ikasleen lanak jarri dituzte ikusgai.

Arkupen, abenduaren 31ra arte. Aste barruan 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Zapatuetan 11:00etatik 13:00etara.

## Bertsoak

### ARETXABALETA

#### > Bertso afaria Peñagarikano eta Lizasorekin, hilaren 18an

Loramendik antolatuta, Sebastian Lizaso eta Anjel Mari Peñagarikanorekin bertso afaria izango da Muru-Alde elkartean, abenduaren 18an.

Txartelak Loramendi elkartean daude salgai, 20 eurotan.

## Ikastaroak

### ARETXABALETA

#### > Dantza afrokaribearrak Jaiki elkartean eskutik

Martitzeneko, 19:30etik 21:00etara, Aretxabaletako

## Antzerkia

### ARETXABALETA

#### > 'Goazen itsasora' haurrendako ikuskizuna zapatuan

Iker Diaz aktorearen eskutik. Bihar, zapatua, Arkupeko liburutegian, 11:30ean.

## Musika

### ARRASATE

#### > Cool Circus eta Malenkonía taldeen kontzertua Gure Leku

Gaur, egubakoitza, *nothing-without.com* webgunearen aurkezpena eta ondoren Cool Circus arrasatearren kontzertua. Bihar, zapatua. *Hegazkadak dakar ekaitza* diskoa aurkeztuko dute Malenkonía oñatiarrek. Kontzertuaren ondoren I-Real disko jartzailearekin festa izango da.

Gaur, egubakoitza, 19:00etan eta bihar, zapatua, 23:00etan, Gure Leku tabernan.

### OÑATI

#### > Ganbara abesbatza eta Ganbara Gazte gaur

Abesbatza bakoitzaren saioen ondoren, elkarrekin *Σ Iste Confessor* (D. Scarlatti) eta *In Paradisum* (P. Barker) eskainiko dituzte.

Gaur, egubakoitza, agustindarren elizan, 20:15ean.

### ARRASATE

#### > Los Quadrophénicos eta Golpe de Estado, 3 aretoan

Los Quadrophénicos arrasatearren eta Golpe de Estado oñatiarren emanaldia.

Gaur, egubakoitza, 22:30ean, 3 aretoan. 5 euro.

### ANTZUOLA/BERGARA

#### > Bergarako Musika Eskolako ikasleen emanaldiak

Antzuolako ikasleekin Gabonetako kontzertua

astelehenean Antzuolan, Torresoroan; organo ikasleen emanaldia egunean Santa Marinako sakristau etxean; eta Musika Eskolako Gabonetako kontzertua Bergarako Udal Pilotalekuan, egubakoitzean.

Emanaldi guztiak 18:30ean izango dira.

## Erakusketak

### ARRASATE

#### > Naturaren argazkilariak

*Naturaren argazkilariak* lehiaketan jasotako lanen aukeraketa jarri dute ikusgai.

Kulturaren, abenduaren 20ra arte. Martitzenetik domekara, 17:30etik 20:30era.

### BERGARA

#### > Jone Telleriaren margoak Hamaika tabernan

Jone Telleria bergararrak 20 bat lan jarri ditu ikusgai. Espoloiako Hamaika tabernan, abenduaren 13ra arte.

### BERGARA

#### > 'Euskal Herria Argien mendean'

Hamar panelez osatutako erakusketa da. Erakusketaren gaia *Zientzia, Teknologia eta Gizartea Euskal Herrian*

### PROPOSAMENA



### ELGETA

#### > Gariren emanaldia Elgetan zapatuan

Hertzainak taldearen garaiko kantuak eta bakarkako ibilbidekoak hartu eta hamasei bertsiotekin egin ditu Garik azken diskoan. Hain zuzen ere, *16 lore* izenburuko diskoan, besteak beste, *Ta zer ez da berdin*, *Esperantzara kondentua*, *Bizitzak*, *Aitormena*, *Zaharra zara Bilbo* eta *Batzutan* kantuak batu ditu, eta Patti Smithen kolaborazio bat ere badago. Miguel Moyano gitarra jolearekin etorriko da legazpiarra Elgetara. Disko berriarekin egiten duen lehen-biziko kontzertua izango da biharkoa.

Bihar, zapatua, Espaloia Kafe Antzokian. Sarrerak: 10-8 euro.

### ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

**ERAKUSKETA IRAUNKORRA:** 1000 m2 baino gehiago handitu berri dugun erakusketa. 190 modulu interaktibo baino gehiagoko erakusketa. Objektuen manipulatu eta esperimintuen bitartez egiten den komunikatze-modu berri bat.

Bi gune bereizten dira:

**HIPATIA**, Zortzi areto ezberdinetan banatuta: Argi jokoak, Lur Ontzia, Energia Txinpartak, Mundu Mekanikoa, Komunikazioa, Zentzumena eta Sentikortasuna, eta Zientziaren Lorategia.

**GAIA** izeneko erakusketa iraunkor berria: 1.000 m2 baino gehiago dauzkan gune honetako ardatz nagusiak **Energia** eta **Natura** dira.

### PLANETARIUM

**Erresoluzio handiko irudi ikusgarriak kupula osoan proiektatuta.**

12:00 (eusk.), 13:00 (gazt.), 15:30 (fran.), 17:00 (eusk.) eta 18:00 (gazt.)  
**Donostiatik zerura begira:** Zuzeneko saioa.

**Itsua izar begiekin:** Itsu bat eta tirano bat protagonista dituen ipuin animatu bat.

**Biziaren jatorria:** Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa.

**Infinity Express:** Unibertsoa eta Eguzki Sistemaren zehar bidaia.

**Kartoizko suziaren sekretua:** Haurrei zuzendutako saioa.

**Eboluzioa:** Izakion historiako gertaera, eta unerik garrantzitsuenek azaltzen dizkigu.

### JAIOZTA-ERAKUSKETA

Abenduaren 12tik urtarrilaren 5era. Museko sarrerarekin ikusga.

### BESTE ZERBITZU BATZUK

Doako aparkaleku zabala, Ingurune aparta, Haur-parkea, Lorategi botanikoa, Jatetxe-kafetegia, Denda, Kontsignak...



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA  
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Miramón-Donostia Tel.: 943 01 24 78  
[www.miramon.org](http://www.miramon.org)

**Ordutegia**  
Astelehenerdik ostirara: 10:00-19:00  
Asteburu eta jaiegunetan: 11:00-19:00



kuartel zaharrean. Ekainera arte.

Izenematea 653 70 50 68 telefonoan edo [jaiikielkarte@ayahoo.es](mailto:jaiikielkarte@ayahoo.es) helbidean.

BERGARA

**> Erromeriako dantzak eta dantza soltea**

Jardun euskara elkarteak antolatuta, erromeriako dantzan ikastaroa otsailetik maiatzera, martitzenetan 19:30etik 21:00etara. Fandangoa eta arin-arina Juantxo Urbietak erakutsiko ditu eguenetan, 19:30etik 21:00etara: hastapen maila urtarrilean eta otsailetik maiatzera maila guztiak.

Izenematea urtarrilean hasiko da. Argibideak Jardunen (943 76 08 19).

ARRASATE

**> Dementziak dituzten adinekoen zaintza ikastaroa**

Abenduaren 14tik 18ra, 15:30etik 18:30era.

Argibide gehiago 943 79 83 70 edo 651 70 79 36 telefono zenbakietan.

## Hitzaldiak

ARRASATE

**> Josu Erkorekaren hitzaldia Kulturaten, gaur**

Madrilgo Kongresuan EAJko bozeramaile den Josu Erkorekak Madrilen aberria nola egiten den azalduko du.

Hurrengo egubakoitzean, hilaren 11n, Kulturaten, 19:30ean.

OÑATI

**> Fibromialgiari buruzko hitzaldia martitzenean**

Bizibide elkarteko Arantxa Alzibarrek fibromialgia eta neke kronikoaren gaineko hitzaldia egingo du.

Martitzenean, hilak 15, kultura etxean.

BERGARA

**> Gotzon Barandiaran poetaren hitzaldia eguaztenean**

Jardunek antolatuta, *Sortu, jaso, zabal zazu. Kulturgintzaz* izenburuko hitzaldia egingo du Barandiaranek.

Eguaztenean, abenduaren 16an, kultura etxean, 19:00etan.

BERGARA

**> 'Wolframioaren aurkikuntza-ren historia eta oihartzunak'**

Pascual Roman Polo, EHUKo Kimika Inorganikoko Katedraduna eta Euskal Herriko Adiskideen Elkarteko kideak egingo du hitzaldia.

Eguenean, hilak 17, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:00etan.

## Lehiaketak

ESKORIATZA

**> Udal Bibliotekako 'Orri puntuak 2010' lehiaketa**

Lehiaketa horretan edozein pertsonak har dezake parte, inolako mugarik gabe. Orri-puntuaren neurriak 21 x 5,50 cm izan beharko du. Irabazleak 300 euroko saria jasoko du. Lanak abenduaren 14ra arte jasoko dituzte.

Argibideak 943 71 31 35 telefonoan.



## El baile de la Victoria \*\*

Zuzendaria: Fernando Trueba.

Aktoreak: Ricardo Darin, Abel Ayala,

Miranda Bodenhofer. Espainia, 2009. 127 min.

Bost urte igaro dira Fernando Truebak *El milagro de Candel* dokumentala egin zuenetik eta zazpi urte *El embrujo de Shanghai* fikziozko bere azken lana estreinatu zuenetik. Orain, Planeta saria lortu zuen Antonio Skarmetaren *El baile de la Victoria* eleberrian oinarritutako filma heldu zaigu.

Proposamen arriskutsua eta handinahia da *El baile de la Victoria*. Genero askotxo nahasten ditu: zinema beltza, komedia, melodrama... eta horri guztiორი kutsu erromantikoa eman nahi dio, baina ez zaio film ona atera. Igar daiteke Trueba ahalegindu dela film erakargarri bat egiten, eszena indartsuak sortzen, eta zineman askotan ikusteko aukera izan dugun egoerei tratamendu berri bat ematen, baina ez du hori lortu. Istoria bat gogoko izateko kontatzen zaizkigun egoerak eta deskribatzen zaizkigun pertsonaiak sinesgarriak egin behar zaizkigu, eta hori ez da gertatzen. Zuzendariak goreneko momentu ugari sartu nahi ditu: dena oso polita, lirikoa eta hunkigarria izatea nahi du eta, azken finean, gozoegia eta norabide gabeko filma atera zaio. Iturri askotatik edan eta leku askotara iritsi nahi du, arlo gehiegi ukituz, eta emaitza xarma txikiko lana da.

Filma ikusita, Truebak eta istorioaren egileak, Skarmetak, zinema maite dutela eta film ugari ikusi dituztela antzeman daiteke. Zinemak duen indar magikoa lortu nahi izan dute: bikotea hiriko kaleetatik zaldi baten paseatzen, neska bere bizitzan lehen aldiz itsasoa ikusten... Dena musikarekin azpimarratuta, eta emaitza hunkigarria izan beharrean artifiziosoa suertatzen da. Beharbada, filmaren azken zatia hobeto dago, badira ondo filmatutako eszena batzuk ere, baina, orokorrean, inspirazio txikiko lan baten aurrean gaudela esan daiteke.

Antonio Zabala

# Zinema

**ARRASATE**

**AMAIA ANTZOKIA**

**La chica que soñaba con una cerilla...**  
Domeka: 19:30.  
Astelehena: 20:30.

**Vicky el vikingo**  
Domeka: 17:00.

**Si la cosa funciona**  
Eguena: 20:30.

**ARETXABAETA**

**ARKUPE**

**Los hombres que no amaban a las mujeres**  
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.  
Domeka: 19:30.  
Astelehena: 16:00.

**Ponyo en el acantilado**  
Domeka: 17:00.

**La duquesa**  
Eguena: 19:30.

**OÑATI**

**KULTUR ETXEA**

**Julie y Julia**  
Egubakoitza: 22:30.  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelehena: 19:30.

**Munduari bira, doan**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Un cuento de Navidad**  
Eguena: 20:00.

**BERGARA**

**ZABALOTEGI**

**El curioso caso de Benjamin Button**  
Zapatua: 19:30, 22:30.  
Domeka: 19:30.

**Los mundos de Coraline**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

**La ola**  
Eguena: 20:00.

**GAZTETXEA**

**Días de radio**  
Domeka: 18:00.

**ELGETA**

**ESPALOIA**

**Tierra de ángeles**  
Eguaztenea: 21:30.

**ARAMAIO**

**KULTUR ETXEA**

**El lector**  
Egubakoitza: 22:15.

**Barriola, San Adriango azeria**  
Domeka: 17:00.

**EIBAR**

**COLISEO ANTZOKIA**

**Julie y Julia**  
Egubakoitza: 22:00.  
Zapatua: 19:30, 22:30.  
Domeka: 19:30.  
Astelehena: 20:30.

**Dos canguros muy maduros**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

**COLISEO 1**

**Los fantasmas de mis ex-novias**  
Egubakoitza: 22:00.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.  
Domeka: 17:00, 19:30.  
Astelehena: 20:30.

**COLISEO 2**

**Dos canguros muy maduros**  
Egubakoitza: 22:00.  
Zapatua: 19:30, 22:30.  
Domeka: 19:30.  
Astelehena: 20:30.

**Pluk eta bere garabia**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

**GASTEIZ**

**GURIDI**

**Lluvia de albondigas**  
16:50, 18:45.

**Planet 51**  
16:50, 18:45, 22:30.

**2012**  
22:20.

**Igelak&zapoak**  
17:00.

**Algo pasa en Hollywood**  
17:30, 20:00, 22:30.

**Agora**  
22:20.

**Luna nueva**  
17:30, 20:30, 22:30.

**Dos canguros muy maduros**  
16:50, 18:45, 20:35.

**Spanish movie**  
16:50, 18:45, 20:35, 22:30.

**El baile de la Victoria**  
19:50, 22:30.

**Buscando a Eric**

20:35, 22:45.

Zapatuan eta domekan.

**FLORIDA-GURIDI**

**Celda 211**  
17:30, 20:00, 22:30.

**Planet 51**  
17:30 (zapatuan eta domekan). Euskaraz.

**El erizo**  
17:30, 20:00, 22:30.

**Mal día para pescar**  
18:00, 20:15, 22:30.

**In the loop**  
18:00, 20:15, 22:30.

**El secreto de sus ojos**  
17:30, 20:00, 22:30.

**Eloíse**  
20:00, 22:30 (zapatuan eta domekan).

**La ventana**  
18:00, 20:15, 22:30.

Egubakoitzean eguenera.

**YELMO CINEPLEX**

**Lluvia de albondigas**  
(3-D emanaldiak)  
15:45 (zapatuan eta domekan), 17:45, 19:45.

**Lluvia de albondigas**  
16:45 (zapatuan eta domekan), 18:45.

**Cuento de Navidad**  
(3-D emanaldiak)  
21:45, 23:45.

**Cuento de Navidad**  
16:10 (zapatuan eta domekan), 18:10.

**Blindado**  
15:55 (zapatuan eta domekan), 17:55, 19:55, 21:55, 23:55.

**Luna nueva**  
15:30 eta 17:00 (zapatuan eta domekan), 18:00, 19:30, 20:30, 22:00, 23:00, 00:30.

**Spanish movie**  
16:15 (zapatuan eta domekan), 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

**Paranormal activity**  
20:10, 22:10, 00:10.

**Planet 51**  
16:00 eta 17:00 (zapatuan eta domekan), 18:00, 19:00, 20:00, 21:00, 22:00, 00:00.

**Celda 211**  
16:15 (zapatuan eta domekan), 18:20, 20:25, 22:30, 00:35.

**Dos canguros muy maduros**  
16:40 (zapatuan eta domekan), 18:40, 20:40.

**Siempre a tu lado, Hachiko**

15:50 (zapatuan eta domekan), 17:30.

**2012**  
15:30 (zapatuan eta domekan), 18:30, 21:30, 00:30.

**Buscando a Eric**  
22:45, 00:50.

**El baile de la Victoria**  
19:10, 21:40, 00:10.

**G-Force: licencia para espíar**  
17:15 (zapatuan eta domekan).

**Agora**  
22:20, 00:40.

**La chica que soñaba con una cerilla...**  
19:15, 21:45, 00:15.

**Hermanidad de sangre**  
20:35, 22:35, 00:35.

Abenduaren 11tik 17ra. Gauerdiko emanaldiak egubakoitzean eta zapatuan.

**ÁBACO BOULEVARD**

**Celda 211**  
16:00, 18:10, 20:20, 22:35, 01:00.

**Lluvia de albondigas**  
16:15, 18:15, 20:15, 22:15.

**Dos canguros muy maduros**  
16:25, 18:20, 20:20, 22:20, 00:30.

**Algo pasa en Hollywood**  
16:10, 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.

**Cuento de Navidad**  
17:00.

**El baile de la Victoria**  
19:00, 22:10.

**2012**  
15:45, 18:45, 21:45, 00:45.

**Spanish movie**  
16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:30.

**Hermanidad de sangre**  
16:05, 18:10, 20:15, 22:20, 00:30.

**Luna nueva**  
16:15, 17:00, 19:00, 19:45, 22:00, 22:30, 00:30.

**Paranormal activity**  
20:25, 22:25, 00:30.

**Planet 51**  
16:00, 16:30, 18:00, 18:30, 20:00, 22:10.

Abenduaren 11tik 17ra. Gauerdiko emanaldiak egubakoitzean eta zapatuan.

## nire aukera



**Alex Familiar**  
Bergarako KEko saskibaloi saileko zuzendaritzakoa

## Asteburuan, Nojara

Urte askotan saskibaloi entrenatzaile jardun ondoren, zortzi urteko atsedena hartu zuen Alex Familiarrek (37 urte). Aurten go denboraldian itzuli da, baina ez aukira, zuzendaritzara baizik. Maila ezberdinetan bederatzi talde eta 109 jokalaririk dituzte. Alexen hitzetan, "parte hartzeari dagokionez, oso momentu onean gaude. Beharbada, hutsune bakarra zera da: formaziodun entrenatzaileen beharra daukagula". Abenduaren 26 eta 27rako gaztetxoei zuzendutako hiruko txapelketa iragarri dute Udal Pilotalekuan.

Martxorako aita izango dela diosku Alexek. Bergarako Lacor enpresan dihardu lanean.

**Asteburuan, zer?**

Nojara joango gara, ziurrenik. Normalean, hara jotzen dugu asteburuetan, deskonektatzera eta lasai egotera. Pentsa, hantxe zaletu naiz golfean jokatzen...

**Eta zer moduz moldatzen zara?**

Bueno... Emaztea ni baino hobeto. Hark, behintzat, ekarri du koparen bat edo beste etxera. Baina oso gustura ibiltzen naiz. Golfa ez da jendeak uste bezain elitista; Kantabriako golf zelai publiko askotxo daude. Realeko bazkide izaten gastatzen nuen diru gehiago...

**Eta, ze itxura hartzen diozu Realari aurten?**

Ona. Harrobiko jokalariekin talde ona egin dute, ideiak garbi daukate eta hasiera ona izatea beti da plus bat...

**Gabonetan, beraz, gaztetxoendako txapelketa izango da.**

Bai, abenduaren 26an eta 27an egingo dugu txapelketa, Udal Pilotalekuan. Benjamin, alebin eta infantil mailetak hiruko txapelketa izango da. Harrobia egin beharra dago... Bestalde, Soraluze gure babesleari eskerrak eman beharrean gaude, saila aurrera ateratzeko ematen digun laguntzagatik.

Edu Mendibil



**Celda 211**

Zuzendaria: Daniel Monzon. Espainia, 2009. 110 minutu. Espetxe funtzionario batek lehen eguna du kartzelan. Egun horretan bertan, preso matxinada baten artean geldituko da harrapatuta. Bizirik irauteko, preso bat balitz bezala aurkeztuko du bere burua. Malamadre izeneko preso (Luis Tosar) da preso liderra eta kartzelako arduradunek ez dakite nola jokatu harekin. Espetxetik kanpo, funtzionario-presoa haurdun dagoen emaztea du zain...

Eskasa: \* Balekoa: \*\* Ona: \*\*\* Oso ona: \*\*\*\* Bikaina: \*\*\*\*\*

**El secreto de sus ojos**

Argentina 2009. Zuzendaria: Juan Jose Campanella. Buenos Aireseko epaitegi bateko idazkaria da Benjamin Exposito. Erretiratzera doa, eta duela 30 urte gertatutako zerbait buruzko eleberririk bat idazteari ekingo dio. 70eko urteak ekarriko ditu gogora: orduan izandako hilketa bat eta, aldi berean, gauzatu gabeko maitasun istorio bat.

**This is it**

AEB, 2009. Zuzendaria: Kenny Ortega. Michael Jackson hil aurretik, agertokiara itzultzeko egiten ari zen entseguen irudiekin osatutako dokumentala da.

**Malditos bastardos**

AEB-Alemania, 2009. Zuzendaria: Quentin Tarantino. II. Mundu Gerran girotu du Quentin

Tarantinok bere azken filma. Naziek Frantzia okupatu dute, eta Shosanna Dreyfusen familia nola hil dioten ikusi du. Ihes egingo du Parisera, eta zinema areto bateko zuzendari lanean hasiko da, beste izen batekin. Europako beste herri batean, Aldo Raine tenienteak talde bat sortuko du, soldadu juduekin osatutakoa. Frantziar naziak hiltzen ibiltzeko. Christoph Waltzek aktore onenaren saria jaso zuen Cannesen.



# Unibertsitate bizitza MUittuz

**HELBURUAK** Herriaren eta unibertsitatearen arteko zuloa txikitzea da MUittu taldearen asmoetariko bat

**MARTITZENAK** Egun kultural bihurtu nahi dituzte martitzenak, horretarako kultura ekintzak antolatuta

**ERANTZUNA** Orain arteko ekintzen erantzuna eskasa izan da eta beste era batera erakarri nahi dute jendea

**IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE**  
Muittu da Mondragon Unibertsitateko plataforma sozio-kulturala. "Bi helbururekin sortu dugu: batetik, bizitza unibertsitarioa suspertzea; eta bestetik, herriaren eta unibertsitatearen artean dagoen zulo handia txikitzea elkarren arteko harremana sendotuz. Betiere, hori guztia pertsonaren garapenerako oinarria dela aintzat hartuta", azaldu digu Pablo Salek, Goi Eskola Politeknikoko Ikasle Kontseiluko idazkariak.

**KAFETEGIA, HUTSIK**

Baina suspertu ahal izateko bizitza unibertsitarioa egon behar da, eta Arrasaten ba ote da? "Ikasleak dauden tokian beti dago unibertsitate bizitza. Hala ere, gure unibertsitatea nahiko hilda dagoela dirudi: kafetegia askotan hutsik egoten da eta ez dago jende asko mugitzen duen ekintzarik. Alde kulturallean, urte batzuetatik hona betetzen ari garen hutsunea dago. Guztia aldatzeko ari gara lanean", esan digu Pablo Salek.



IKASLEAK Mondragon Unibertsitateko ikasle taldea erabilera askotariko gela batean.

IRATI AGIRREAZALDEGI

Mondragon Unibertsitateko Arrasateko campusekoek sortu dute mugimendua eta helburua da Mondragon Unibertsitate osoa zabaltzea. "Arrasateko campusean, nor bere kabuz jardun du lanean, eta erakunde edo departamentu horien guztien artean

osatu dugu MUittu: Biteri Ikasle Nagusiak, Kirol eta Osasun zerbitzuak, Kultura bekadunak eta Ikasleen Kontseilu Sozialeko idazkariak", esan digu Salek.

Helburuak jartzea, ordea, ez da nahikoa eta horretarako hainbat jardura antolatu dituzte.

Esaterako, *Asteartero Muittu* ekimena. "Asteartea egun kultural bihurtzea lortu nahi dugu unibertsitatekoendako eta herritarrendako. Orain arte egindakoak izan dira: bertso afaria Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Beñat Gaztelumendirekin; Indiaren

inguruko argazki erakusketa eta hitzaldia; Kubako *Festival Internacional de Cine Pobre* emanaldia; Pou anaien emanaldia; eta azkena, abenduaren 1ean Txus Jaio pilotuak rallyen gainean egindako berbaldia".

**PUBLIZITATEA**

Abenduari opor usaina hartzen diote ikasleek, eta ekintzak antolatzeko orduan etena egingo dute MUittukoek. Urtarrila eta otsaila azterketa sasoia dira eta ekintzak baino gehiago, azterketak gertatu behar dituzte; hortaz, martxoan ekingo diete berriz jarduerari.

Orain arteko ekintzek ez dute bizitza unibertsitarioa askorik mugitu. Pablo Salen esanetan: "Ekintza potentzia izateak ez du ziurtatzen jendearen erantzuna; nahiz eta azkenekoetan jendea animatu den, oro har nahiko erantzun eskasa izan da. Hori aldatzeko publizitatea egiteko beste era batzuk bilatzen ari gara, besteak beste, *Facebook* profila: *MUittu Bizitza Unibertsitarioa*".

**ahobero**

**"Aktorea izateko beharrezkoa da egoa edukitzea, baina egoa da gure etsairik handiena"**

Penelope Cruz > Aktorea

Aktoreen izenean horrelako baieztapenak egitea ere... Nola esan dezake egoa euren etsairik handiena dela jendaurrean tente-tente ibiltzen den neska horrek? Harro eta lotsagabe izaten badaki, nahiz eta komeni zaionean bere alderik leunena erakutsi eta lotsati eran azaldu.

**iturri onetik**

**Bost bertsolarik jardungo dute Errege bezperako Oñatiko bertso saioan**

Urtero egiten dute bertso jaialdia Errege bezperan, urtarrilaren 5ean, Oñatin. 2010a ere bertsotan hasiko dute txantxikuek eta saioa Zubikoa kiroldegian izango da, 22:30ean. Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Uxue Alberdi eta Beñat Gaztelumendi bertsolariek jardungo dute Egoitz Aizpuruaren esanetara. Sarrerak kiroldegian salduko dituzte egun horretan.

**piperrautsa**

Mikel Irizar > [www.goiena.net/blogak/piperrautsa](http://www.goiena.net/blogak/piperrautsa)

**Hopenhagen**

Itxaropena piztu du hiriburu daniarreko gailurrak klima aldatetaren inguruan. Izango da aurrez AEB eta Txina inoiz baino konprometituago agertu direlako, edo Europak egitasmo zehatza daramalako, edo klimaren datuak gero eta kezagarriagoak direlako, baina hau idazten ari naizela *hope* da hitza, eta hortik Kopenhagen izenaren moldaketa jostaria.

Nik ere itxaropena izan nahi dut, gailur honek mugarri berria jarriko duela bide luzean, orain ofizial eta laster lege bihurtuko dituela planetaren zaintzarako hainbat ekimen, eta aterpe emango diela gizarte mugimenduen aldarriari. Sinetsi nahi dut oraindik gai garestu denon artean eta bakoitzak dagokiona eginaz natura gaiak kontsumitzeko neurri jasagarriak, dena suntsitu gabe. I hope so.

**ai, ene!**



**Eski taula zaharrekin egindako aulkia**

Eseri eta euskarri motza duen poltsarekin ez da jakiten askotan zer egin. Horra hor aulkia poltsa zintzilikatu eta seguru gordetzeko.

[www.nopuedocreer.com](http://www.nopuedocreer.com)

**dks '09**  
debagoieneko  
II. kirolsariak

**Debagoieneko kirolaren sari banaketa ekitaldia**

**Eguna: Abenduak 18 ostirala**  
**Lekua: Santa Ana aretoa (Oñati)**  
**Ordua: 19:00etan**

ANTOLATZAILEAK

BABESLEAK

LAGUNTZAILEA

KOORDINATZAILEA

**Egin zure proposamena! → [www.kirolsariak.com](http://www.kirolsariak.com)**